



uk

32. zenbakia / 2002 iraila

Zer da Egizu?

Egizu Getxon euskaraz berba egitea bultzatu nahi duen proiektua da. Guztiok dakigu edozein hizkuntza ondo ikasteko praktika behar beharrezkoa dela eta horixe da, hain zuzen, Egizuk lortu nahi duena, berba egitea, egitea.

Egizu zeuk ere!!

Zer eskaintzen dizu Egizuk? Beralaguna

Euskara ikasten ari direnak eta euskaldunak harremanetan ipintzea beren adin, zaletasun eta ahalmenez arabera. Adibidez: astean behin geratzea kirola egiteko, mendira joateko, paseatzeko, kafetxo bat hartzeko...

Izan zaitez zeu ere beralaguna!!

Kultur ekintzak

Egizuk kultur jarduerak antolatzen ditu: tailerrak, hitzaldiak, ipuin kontalariak...

egizu!



berbalaguna

Izena emateko edota informazioa jasotzeko bidali fitxa hau edo hurbildu zaitez helbide honetara (arratsaldez, 16.00-20.00):

Karitate Kalea, 1. Sotoa 10. bulegoa / Algorta (Getxo)

Idatzi gure helbide elektronikora:
egizu@hotmail.com

Edo deitu gure telefonoetara:
94 491 43 57 / 605 73 99 16

Izen Abizenak

Helbidea

Herria

Telefona Sakeleko telefona

E-mail

Zertan interesatuta zaude

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Gurea zinema, Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Jesus Olea.
7. LEHEN ETA ORAIN. Udaletxeko balkoitik.
8. HERRIZ HERRI. Getxo 8. Leioa 12. Erandio 16. Berango 20.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Belarra. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Anjel Alkain.
30. ERREPORTAJEA. Roberto Laisekagaz Tour-ean. Aitor Galbarriartu.
34. MODA. Miriam Ocariz.
36. BIZIMODUAK. Atzerrian ikasi.

KULTURA


38. FOTOGRAFIA. Juan Luis Markaidaren argazkiak.
44. ZINEMA. Maitasunezko filmik onenak. Borja Crespo.
46. MUSIKA. *Rudo&Friends*, Zurt musika taldeak.
48. ELKARRIZKETA. José María Cundín artistari elkarrizketa.
49. IRAKURGAIK. Erreseinak eta Esti Ezkerraren zutabea.
50. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.
52. BIDAIAK. Gonzalo Iribarnegarayren eskutik.

EUSKARAZ

54. URIBERTSOAN BARRENA. Beñat Gaztelumutiarri elkarrizketa. Bizkaiko txapelketaren historia. *Begi belarri* eta Nahikari Ayoren bertsoak. Hau guztia, Algortako Bertsolari Eskolaren eskutik.
58. AKABUKO PUNTE. Emilia Agirregaz berbetan egon da Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
60. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa...

AMAITZEKO

62. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Alangoetxe, Algortako txoko bat. Hilario Arbelaiz, puntako sukaldaria elkarrizketatu dugu. Non jan? Adibidez, Goieztiz jabetxean. Eta pintxoak? Zodiacos tabernan.
68. HOROSKOPOA.
69. KOMIKIA. Gorka Vázquez.
70. AITORMENAK. Alaitz Telletxea.
71. FLASH BACK. Areetako Batzokiko Dantza Taldea, 1928. Bittor Egurrola.



26 Anjel Alkain

Berbetan

Gau asko alaitu dizkigu Anjel Alkain aktore bikainak. Ezagutu nahi izan dugu eta Donostiaraino joan gara.



70 Alaitz Telletxea



64 Hilario Arbelaiz




34 Miriam Ocariz



30 Roberto Laisekagaz Tour-ean



58 Emilia Agirre



55 Beñat Gaztelumutia



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Ameztiz 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERRREDAKZIOA: Javi Gonzalez del Herrero, Unai Brea
FOTOGRAFIA BURUA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Butron
AHOLKULARI GRAFIKOA: Guillermo Almagia
MARRAZKILARIA: Gorka Vázquez
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Urtzi Iglesias, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Gonzalo Iribarnegaray, Berbots eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartek
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Edorta Cachorro (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



GETXOKO UDALA



Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala



Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuoko dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala



Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

Behar-beharrezkoa

ditugu zuen

dirulaguntza

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Ale honetan

Abuztua oporren hilabetea izaten da gehienentzat; ez, ordea guretzat. Izan ere, lanean ibili gara, zuk, irakurle horrek oporren bueltan UKren ale berri bat jaso dezazun. Hala ere, txangotxoak egin ditugu. Esaterako, Donostia aldera joan ginen **Anjel Alkain** aktore alaia ezagutzea otu zitzaigulako eta, bide batez, **Alaitz Telletxea** deitu genuen eta pozik erantzun zien gure galderei. Artean gose ginen eta norbaitek **Hilario Arbelaitz** maisu handiaren jatetxean ez ginela damutuko esan zuen. Baina Gipuzkoa aldera joan baino lehen Frantziari itzulia eman genion Tour-ean eskualdeko ordezkari bat genuela aitzakia hartuta: **Roberto Laiseka**. Gu bezala gero eta gehiago dira atzerriara ateratzen diren gazteak, ikastera. Herriko laurekin egon ginen eta euren bizipe-nak kontatu zizkiguten. Ikasturte berria, urtaro berria eta nola ez, moda berria. Inoren azalpenak behar genituen eta denon ahotan dabilen **Miriam Ocariz** disenatzaile sari-tuaren estudioan jo genuen atea. Artista da bera eta baita **Jose Luis Markaida** gure herriko argazkilaria. Bere lana izugarri gustatu zitzaigun eta sei orrialde eskaini dizkio-gu ale honetan, zalan-tza barik askoz gehiago merezi ditu. Bestetik, ale honetan ohiz-ko atalak ere aurkituko dituzu, hau da, herrietako berriak, zinema, musika, internet, bertsolaritza... Aurrerantzean, gainera, bidaien gaineko atal berri bat argitaratuko dugu hileroko **Gonzalo Iribarnegarai**ren eskutik.

Tira ba! Hauxe da guztia oraingoz. Eutsi goiari!

UK-ko lantaldea

besteek esanak

“Esplotatuagoa dago hemengo langilea Guatemalako nekazaria baino”
Walter Wendelin (Askapena taldeko koordinatzailea)

“Ezin gara harritu irailaren 11ko gertakarien ondotik izan ziren poztasun adierazpenengatik. Mundu osoan izan ziren”
Lance Armstrong (Txirrindularia)

“Herri honek bere hizkuntzan eguneroko bizitza egiteko eskubidea osoa du”
Xabier Mendiguren (Kontseiluko idazkari nagusia)

“Abertzaleok 98ko batasunera iristen ez bagara, jai dugu”
Iñaki Esnaola (Abokatua)

“Euskal gizarteak nahi duen autogobernua izango du Euskadik”
Juan Jose Ibarretxe (Lehendakaria)

“Bakardadea XX. mendeko gaixotasuna da”
Luis García Berlanga (Zinemagilea)

OKERRAK ZUZENDUZ (UK 31)

Aurreko alean, *Akabuko punte* atalean Sopelako **Jon Ugarte** elkarrizketatu genuen, baina titularrean deitura aldatu eta Jon Uribe bataiatu genuen, barkamenak. Zine orrialdeetan, **“MIB II”** filmeko errepartoaren protagonistak ez dira ez Tom Cruise ezta Max von Sydow ere, baizik eta lehenengo zatia egin zuten berberak; **Tommy Lee Jones** eta **Will Smith**.

[irudia]



Gurea zinema / Ameslekua bere baitan gordezen zuen eraikina bota dute eta aurrerantzean zinemak algortarron oroimenan baino ez du lekurik izango. Baina, behintzat, behin betiko desagertu baino lehen argia ikusi zuen Gurea-ko areto ilunak. / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Iritzia

Ikasturtearen hasiera aitzaki hartuta, gure inguru erdalduneko gazte jendea euskalduntzeko irakaskuntzak duen balioaz galdetu diogu Jesus Oleari.

Hezkuntza

euskara

“Ikastolan edo ikastetxean urte asko eman ondoren gazteek ez dute euskara komunikazio-tresnatzat hartu, ez dute euren artean egiteko obiturarik eta ez dute inolako erraztasunik euskaraz hitz egiteko edo idazteko”

“Gaurko ume eta gazteak geroko euskaldunak izatea nahi badugu, ez dugu zama guztia hezkuntza-sisteman jarri behar. Etxeko zein herriko giroa edo lagunartekoa ere kontuan hartu behar ditugu”

Batzuetan euskararen etorkizuna hezkuntza-sistemak ziurtatuko duelakoan, lasai asko bizi gara eta gure seme-alabak D izeneko ereduari matrikulatzearekin, hizkuntzarekin gure betebeharrak guztiak hor amaitzen direla ematen du. Hori garrantzitsua bada ere, lerro hauen bidez, hezkuntza-sistemak gizartea euskalduntzeko duen ahalmenaren inguruan hausnarketa txiki bat eman nahi nuke edo, behintzat, irakaskuntzaren munduan urte batzuetan aritu garenok askotan gure artean komentatzen duguna.

Maila guztietako irakasleok batzen garenean, hiri-ingurunean euskararen jarraipenaz gure kezka azaltzen dugunean adibide hau aipatu ohi dugu: hezkuntza-sistemari esker, gero eta gazte gehiago euskaldunak direla eta, beraz, ertainetan bukatu ondoren unibertsitateari pasatzean euskal adarretan matrikulatuko direla. Baina errealtateari begira fenomeno hori ez da gauzatzen ari (edo ez, behintzat, uste genuen abiaduran). Eta hori, zergatik gertatzen ari da? Ohiko azalpenak entzuten ditugunean zera esaten digute: ikasleak liburu eta ikasteko materialik egongo ez ote den beldur direla, hizkuntza eta hiztegi teknikez beldur direla, eta abar.

Azalpen horiek guztiak egiazkoak badira ere, badago, hala ere, beste arrazoi bat sakonagoa eta gogorragoa: gazte horietatik asko eta asko, txikitatik euskaraz ikasi arren ez dakite hizkuntza behar bezala. Ikastolan edo ikastetxean urte asko eman ondoren gazte horiek ez dute euskara komunikazio-tresnatzat hartu, ez dute euren artean egiteko obiturarik eta ez dute inolako erraztasunik euskaraz hitz egiteko edo idazteko.

Adibidez, haietako batzuk, DBH eta Batxilergoa euskaraz bukatu ondoren, euskaltegietan azaltzen dira EGA titulua ateratzeko asmoz eta, euren maila kontuan hartuta, hirugarren edo laugarren urratsetara bidaltzen dituzte. Horrelako ikasleek nola ikasiko dute euskaraz karrera bat? Batzuk ez dira

unibertsitatean euskal adarretan matrikulatzen euskaraz egiteko gaitasunik ez dutelako, edo euskararekiko konpromisorik ez dutelako sentitzen. Baina beste ikasle batzuk, ordea, ausartagoak-edo, euskal adarrean matrikulatzen dira eta, ikasgeletan, euren gabeziak agerian geratzen zaizkie.

Ikuspegi ezkorra izan liteke baina egiazkoa da. Hezkuntza-sistema ez da nahikoa gure herria euskalduntzeko. Gazteak, ertainetan dauden bitartean, euskara euren arteko komunikazio-hizkuntzat hartzen ez badute, gabezi handiak izango dituzte eta ez dira inoiz euskaldun osoak izango.

Horregatik gazteen aisialdia, kirola, musika edo eurek gustuko duten beste edozein gauza euskararekin lotzea oso garrantzitsua da, giro euskaldun batean murgil daitezen eta euskara erabil dezaten.

Eta gazteak euskaldundu ondoren, ahalik eta erraztasunik handienak eman behar dizkiegu euskaraz jarraitzeko. Unibertsitatearen munduan ere gauza asko dago egiteke: euskara talde gehiago eskaintzea inor ez dadin gazteleraz matrikula ordutegi-arazoengatik edo karrera guztiak erabat euskaldundu. Eta unibertsitateaz gain, zer esan Lanbide Heziketaz? Hor lehenengo urratsak baino ez dira eman.

Gaurko ume eta gazteak geroko euskaldunak izatea nahi badugu, ez dugu zama guztia hezkuntza-sisteman jarri behar. Etxeko zein herriko giroa edo lagunartekoa ere kontuan hartu behar ditugu. Hezkuntza garrantzitsua da eta hor lan handia egiten da, baina ez dabil emaitza ona ematen eta berez ez da nahikoa ondorengo belaunaldiak euskalduntzeko. Egin dezagun guztiok zerbait. ⁴

Jesus Olea (irakaslea da Unibertsitatean)



Iraganez doa denbora* beti / BISTA GETXOKO UDALETXEKO BALKOITIK

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Kiroldegi berria Gobelan

Urte amaieran hasi nahi du udalak **Erromo-Areeta** aldean kiroldegi berria eraikitzen. Kiroldegi honek besteak beste, **hiru igerileku**, futbol zelaia eta tenisean jokatzeko **kantxak** bilduko ditu

Ia 84.000 biztanle eta kiroldegi publiko bakar bat, Fadurakoa, izan dugu orain arte herrian. Beraz, kirolerako instalazio gehiagoren premia handia zen Getxon. Orain udalbatzak kiroldegi berria eraikitzea onartu du EAJ, EA eta Batasunaren botoekin. PSOEk aurka bozkatu zuen eta PP abstenitu egin zen. Udal agintarien arabera, proiektu hau azken hamarkadetako handiena da.



Argazkin, kiroldegi berria eraikiko duten ingurua

eta bai futbol zelaia partiduak telebistatik eman ahal izateko egokituko dira. Honez gain, kirol instalazioak tenis eta padel kantxak, gimnasioak, aerobic egiteko gelak, taberna bat, prentsa gela eta klub en bulegoak bilduko ditu. Azpiegitura honen azpian 286 autorentzako aparkaleku handi bat ere eraikiko da.

«Guztira 14,6 milioi euro (2.500 milioi pezeta) gastatzea aurreikusit dute agintarieki kiroldegi berria eraikitzeko»

Energia garbiak erabiltzea ere aurreikusit da eta horregatik, kiroldegiaren erdialdean eguzki panelak jarriko dira instalazioak hornitzeko. Guztira, Gobela kiroldegiaren

Ezaugarri nagusiak

- Kiroldegiaren aurrekontua 14.693.000 eurokoa izango da.
- 24.777 metro karratu edukiko ditu eta futbol zelai bat, hiru igerileku, tenis zelai bi, padel zelai bi, gimnasioa, 286 autoentzako aparkalekua, taberna, prentsa gela eta klub en bulegoak bilduko ditu.
- Lanak azaroan hasiko dira eta gutxi gora behera bi urte iraungo dute.

aurrekontua 14,6 milioi eurokoa izango da (2.500 milioi pezeta) eta udalak oraindik zein enpresak eraikiko duen erabaki ez badu ere, lanak urte amaieran hasi nahi dira eta bi urtetan amaitzea espero dute. m

Estatuko aberatsenak

gara Caixa banketxearen arabera



Getxon 40.000tik gora auto daude

Caixak egiten duen urtekari ekonomikoaren arabera, Getxoko biztanleen errenta 13.000 eurotik gorakoa da eta horrek Estatuko herririk aberatsenen artean kokatzen du gurea Donostiarekin batera eta Girona, Madril eta Bartzelonaren aurretik. Datu hauek Caixa banketxeak egin duen azkeneko urtekari ekonomikoan agertzen dira. Ikerketa honen arabera, Euskal Herriko zazpi udalerririk agertzen dira estatuko 35 aberatsenen artean. Erkidegoen rankingean, EAE seigarren postuan sailkatuta dago, Baleareak, Katalunia, Madril, Nafarroa eta Aragoiren atzetik. m

Getxo

- 83.955 biztanle
- 42.522 motoredun ibilgailu
- 34.285 telefono
- 566 industri jarduera
- 64 banketxe

Aberatsenak

1. Donostia
2. Getxo
3. Girona
4. Lleida
5. Pozuelo de Alarcón

Iturria: La Caixa

“ERDI AROKO AZOKA” HILAREN BUKAERAN

Irailaren 27, 28 eta 29an Algortako plazek eta kaleek atzera egingo dute denboran Erdi Aroko giroa berpizteko. Bada, bufoiek eta trobadoreek kaleak hartuko dituzte eta gainera azoka eta bestelako ikuskizunak ere egongo dira. Basagoiti etorbidean, San Nikolas eta Getxo Antzokiko plazetan postuak, musika, abereak, aztiak... egongo dira. Bestetik, hileon ere, ostirala 13 eta domeka 15 bitartean, Areetako Geltokiko Plazan XVI. Habanera eta Itsas-Abesti Jaialdia egingo da. Sarrera dohainik izango da eta Katalunia, Asturias eta Euskal Herriko taldeak entzungo ahal izango dira egunero arratsaldeko 20:30etatik aurrera.



Herriko 40 ikaslek

Getxoko **historia** kontatu dute komikien bitartez **liburu** batean

San Nikolas ikastola, Nuestra Señora de Europa, Santísima Trinidad eta Madre del Divino Pastor ikastetxeetako 3. eta 4. kurtsoetako berrogei ikasle, Getxoko historia komiki batean kontatzeko ardura-dunak izan dira. Proiektua Getxoko udaleko kultur saileko ekimen bat izan da eta proposamena herriko ikastetxe guztiei (publikoak eta pribatuak) luzatu zitzairen. Azkenean lehen aipaturakoak izan ziren parte hartu zutenak. Lau ikastetxe ezberdin zirenez, eta ahalik eta askatasun eta autonomia gehien emateko asmoarekin, komikia lau ataletan banatu zuten (Erdi Aroa, Aro Modernoa, XIX. mendea eta XX. mendea) eta ikastetxe bakoitzak bana egin zuen. Historia guztiak lotzen dituen pertsonaia Karolo da. Protagonista, San Nikolas ikastolako umeek diseinatu eta parte hartzaile guztien artean aukeratu zuten. Liburua Getxoko liburutegietan dago irakurgarri. m



Liburuko irudi batzuk



Ezkerrean, Iñaki Eguzkitza; erdian, Juna Labat umea

Iñaki Eguzkitza > Saharako ume bat ekarri du udan “Hizkuntzarena eta haurraren herri-mina arazorik handienak izan dira”

Juna Labat-ek lau urte eta erdi ditu eta basamortuan, errefuxiatuen kanpamendu batean bizi da Aljerian. Uda hau gure artean pasatu du Aingeru Lazkano eta Iñaki Eguzkitza getxoztarrekin.

—**Iñaki, zergatik erabaki zenuten Juna ekartzea?**
—Beti eduki ditugu laguntzeko gogoak. Aurten, alabak ume bat ekar genezakeela esan zigun eta oportetan joateko asmorik ez genuenez, une aproposa iruditu zitzaigun.
—**Sahararen aldeko ATFAL elkartearen eskutik, Juna ekarri duzue...**
—Bai, bera Aljeriako basamortuan bizi da. Gobernuak leku bat utzi zien sahararrei han bizi baldintzak ezinezkoak zirela pentsatzen zuelako, baina Aaiun izeneko hiria-
ren antzeko bat altxatu dute eta han bizi dira, bizi baldintzak eskasak diren arren. Guk argazkietan eta bideotan baino ez dugu ikusi baina oso latza dela dirudi.
—**Ekarri duzuen lehenengo umea izan da Juna?**
—Bai. Lehengusuek gehiagotan ekarri dituzte. Haiek ere animatu gintuzten.

—**Juna uztaillean eta abuztuan egon zen gure artean. Zelan integratu zen?**
—Hasieran oso txarto. “*Labio leporino*” izeneko gaixotasuna zeukan eta ebakuntza egin ziezaioten ekarri genuen. Han bere gurasoek ondo azaldu zioten kontua, baina gurasoengandik urrundu, eta hona ekartzean gauzak erabat aldatu ziren. Ez genuen elkar ulertzen (hizkuntzarena oztoporik handiena izan da) eta umeak herrimin handia zeukan... Lehenengo bi asteak oso gogorrak izan ziren guztiontzako. Umea txarto zegoen eta gu txarto sentitzen ginen ezin genuelako ezer egin.
—**Zelan gaintitu zenuten arazo hau?**
—ATFALeko jendeak asko lagundu gintuen. Asteazkenero etorritako ume guztiak eta gurasoak elkartzen ginen eta horrek, bere herrialdeko umeak ikusteak, asko lagundu zion umeari. Gainera, Junaren osaba bat Iparraldean bizi da eta hona hurbildu zen bisitan. Hortik aurrera gauzak askoz hobeto joan ziren. Guk 21 urteko alaba bat daukagu eta lagun handiak egin ziren. Azkenean oso esperimentzia polita izan da guztiontzat. m

Antzezaleak elkartea 20. urteurrena



Antzezaleak taldeak margoa, zeramika, grabatu eta beste hainbat ikastaro eskaintzen ditu

Hogei urte igaro dira getxoztar batzuek Antzezaleak taldea sortu zutenetik eta ordu-tik gauza asko aldatu dira. Halaber, hogei bat lagun hasi ziren eta gaur egun 110 pertsona inguruk osatzen dute taldea; gehienak

helduak eta Getxokoak. Hauez gain, 115 ikaslek hartu dute parte azkeneko ikasturteko tailer ezberdinetan; margoa, zeramika, grabatuak... Irakasleak Antzezaleak-eko eskarmentu handiko bazkideak izan dira.

Getxoko Artisten Taldeak, Arene kaleko 8. zenbakian dauka aretoa. Elkar-teak orain arte eduki duen hirugarrena da eta baita erabili-ena ere. Taldeko kidea den Alberto Urkitzak esan zigunez, “*110 bazkide garen arren, gehienez ere 50 izango gara aretoa maiz erabiltzen dugunak*”. Bazkideen artean, artista handiak aurki ditzakegu baina momentuz ez da profesionalik atera. Nahiz eta baten batek profesionaltasuna duen helburu, Antzezaleak elkartean dauden gehienak zaletasunagatik baino ez dute egiten.

Aurten taldea bere hogeigarren urteurrena ospatzen ari da eta horren inguruan hainbat ekintza antolatu dituzte hurrengo hiletarako. m

Antzezaleak

- **Bazkideak:** 110
- **Irakasleak:** 10
- **Ikasleak:** 115
- **Helbidea:** Arene 8, Algorta
- **Telefona:** 94 430 89 26

Denda Txik herriko eskulangileen denda Portu Zaharrean

Denda Txik denda, Arte Txik Kultur Elkartearen proiektu bat da. Talde honek herriko artisau eta artigileen bilgune izan nahi du eta aldi berean euren lanei irtenbide komertziala eman nahi die. Horretarako denda paratu dute Algortako Portu Zaharrean. Bertan, arropa, postalak, belarritakoak eta hainbat gauza topa daitezke. Aretoak joan den abuztuak 5ean atea zabaltu zituen eta ordutik nahiko ezaguna egin da auzokideen artean. “*Hemengoak garenaz, jendeak oso ondo hartu gaitu eta, gainera, asko lagundu digute*”, azaldu zigun elkarte honen kidea den Marije Mansok.

Arte Txik kultur elkarteko kidea izateko nahikoa da Getxon bizitzea eta urteroko kuota ordaintzea. Baina bilgunea eta dendaz gain, elkarteko kideak euren kultur eskaintza ere egin nahi dute eta, esaterako, urritik aurrera auzoko umeentzako tailerrak eman nahi dituzte, dendan bertan. m



Dendaren ordutegia: 12:00 /14:00 & 18:30 / 21:30. Harremanetarako: 625 999 353

Kurkudi berriro ere eskolara

Oporren ostean, udan ez dute ekitaldirik antolatzen normalean, Kurkudi **Kultur Taldea** berriz dago **lanerako prest**, ia-ia elkartearen sortu zenetik haren kide den Gorka Jauregizuriak azaldu digunez


Uda amaituta, Kurkudi Kultur Taldeak lanari ekingo dio berriz ere irailean. Duela hamahiru urte elkarteak hartutako bideari eutsiz, ekimen informatiboak eta parte hartzea sustatzen dutenak izango dira nagusi kurkuditarren agendan, oztopoak oztopo. Horri buruz eta taldearen historiaren berba egin digu Gorka Jauregizuriak, Kurkudiren eskarmentu ederra daukan leioztarrak.

“**Komunikabideen** bitartez informazio eskasa beltzen da eta hemengo jende talde batek zerbait kontatu zezaketen protagonistak bertoraino ekartzea erabaki zuen”. Era horretan gogoratzen du Gorka Jauregizuriak Kurkudiren hastapena. Pentsatu eta egin. Elkartearen sortu zutenek errusiar emakume bat gonbidatu zuten Leioara, garai hartan (1989) pil-pilean zeuden *glasnost* eta *perestroika*-ri buruz mintzatzeko. Antza, ekimena arrakastatsua suertatu zen.

Jauregizuriak hura baino sei hilabete geroago sartu zen taldera. “*Gure asmoa, zentzu zabalean, euskal kultura hedatzea zen: kirola, politika zein artea*”. Ez zuten kontsumorako ezer sortu nahi, informazioa eman eta jendearen parte hartzea bultzatzea baizik. Eta, horrela, denetarik egiten hasi ziren.

Alde batetik, gai askori buruzko mahai-inguruak, eztabaidak eta hitzaldiak antolatzen hasi ziren. Bestetik, bidaiak, ikastolen jai handietara batik bat. Eta hirugarrenik, ikastaroak eta txapelketak.

Gaur arte mantendu dute ildo hori, mota honetako talde batek izan ohi dituen



Argazkian, Gorka Jauregizuriak

gorabeherekin, baina zitari huts egin gabe. Jauregizuriak dioskunez, “*herrian gauza gehien antolatu duen elkartearen izango gara beharbada*”. Kurkudik berak egindako kalkuluen arabera, ehun ekitaldi baino gehiago antolatu dituzte, eta horietan 2.500 lagunek baino gehiagok parte hartu izan du.

“Aurten kontzertuak antolatu dituzte, lehenbiziko aldiz”

Aurten, ohikoez gain, gauza berriak egin nahi izan dituzte. Esaterako, otsailetik maiatzera musika mota desberdinetako kontzertuak antolatu zituzten. Gustura daude lortutako emaitzekin, eta saio gehiago egiteko asmoa dute. Irailean, halaber, aspalidanik egiteko gogoia duten hitzaldia anto-

Oztopoak bidean

Kurkudirentzat ez da erraza suertatzen euren lana burutzea. Orintsu egoitzarekin arazoak izan dituzte, guztion gogoan dauden arazoak direla-eta. Aurten, gainera, Udaletxeak orain arte beti jaso duten dirulaguntza ukatu die, kalean kartelak ipintzea leporatuz. Hala ere, horrek guztiak beren egitekoak egitea ez diela eragotziko dio Gorka Jauregizuriak.

latu nahi lukete: komunikabideei buruzkoa. Hain zuzen, euskal gatazkaren aurrean duten jarrera aztertu nahi dute. Eta hori gutxi balitz, laster izango ditugu kilometroak eta Nafarroa Oinez. Horiatar joateko, beti bezala, autobusa prestatuko dute.



Kiroldegiaren sarreraren diseinuak Jorge Oteiza eskultorearen kubo metafisikoak ditu oinarri

Hil honetan hasiko dira lanak Sakonetako sarreran

Ekainerako iragarrita bazeuden ere, azkenik irailean hasiko dira Sakonetako kiroldegiko sarrera hobetzeko lanak. Aldi berean helburu estetikoak eta funtzionalak ditu Udalak bultzatu duen proiektu honek. Batetik, sarrerako lurzorua espaloiarene maila berean utziko dute; horrela sarbidea erraztuko zaie elbarrituei eta, gainera, euria denean ur-putzuak sortzea saihestuko da.

Bestalde, kontuan izan behar da kiroldegiko sarreraren diseinuak Jorge Oteiza eskultorearen kubo metafisikoetan duela oinarria. Baina, udalekoen aburuz, bere garaian erabili ziren materialen kalitatea ez dator diseinuaren mailarekin bat. Horregatik material hobek erabili nahi dituzte orain sarrerako lurzorua berregiteko, “kutxa metafisikoa” izena hartu duen ataria edertzeko asmoagaz. m

BIDEO, ARGAZKI ETA DIAPOSITIBA LEHIAKETAK ABIAN

Leioako Udalak irudigintzari lotutako hiru lehiaketa antolatu ditu aurten ere. Argazki eta diapositiben kasuan, hamaseigarren edizioa dugu aurtengoa; bideoarenean, bederatzigarrena. Lanak Kultur Aretora helarazi behar dira azaroaren 22a baino lehenago; epaimahaia abenduaren 20an emango du irabazle suertatu direnen berri, eta abenduaren 21ean emango dira sariak. Diapositiba eta argazkien arloan irabazten dutenek 300 euro jasoko dituzte. Bideo hobereenen egileek, berriz, 900. Kasu honetan lehen sari bi izango dira, euskarazko eta gaztelerazko bideoentzat hurrenez hurren. Informazio gehiago lor dezakezue Udaletxean edo Kultur Aretoran.



SATISTEGI

CAFE

ADITUAK GARA

PINTXO ETA

BOKATA

BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51

ALGORTA

KURKUDI

LIBURUDE NDA

Euskarazko

irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA

T: 944 913 402

Musikale Leioan

Irailaren 13tik 15era,
nazioarteko **musikariek**
herriko **kaleak**
alaituko dituzte

Musikale, Nazioarteko Kaleko Musika-
rien II. Topaketa, irailaren 13tik 15era
egingo da Bizkaiko sei udalerritan. Ho-
rietako bat, Leioa.

Ostiralean, gaueko 9 eta 10etan,
Brasilgo eta Errumaniako bandak aritu-
ko dira, Sakonetatik Udondorako bide-
an. Larunbatean, Ingalaterra, Frantzia
eta Euskal Herrikoek joko dute goizez;
eta India, Espainia eta Portugalekoek
arratsaldean, ostiraleko ibilbide berarekin.

Igandean amaituko da Musikale, eta
lau talde berrik hartuko dute parte:
Akitaniatik, Galizatik eta Kataluniatik
etorritakoek, eta talde bereber batek.
Goizeko saioak 12:30etan hasiko dira,
eta arratsaldekoak 19:30etan larunbate-
an, eta 18:00etan igandean (azkena On-
diz auzoan izango da). m



Golden Apple Quartet talde donostiarrek emanaldi umoretsua eskainiko du

Jaiak Udondon Musika izango da **nagusi** egitarauan

Sanjuanak besteko sona ez badaukate ere,
Udondoko jaiak tradizioari eusten jakin izan
dute. Aurtengoa ez da salbuespena izango,
eta dagoeneko berton dauzkagu auzo txiki
honetako jai-batzordeak prestaturiko ekital-
di interesgarriak. Izan ere, UK hau zuregana
heldu orduko jaiak hasita izango dira; iraila-
ren 10ean, joan den asteartean beraz, hain-
bat eginkizun izan zen. Baina mamitsuena
asteburuan etorriko da.

Hilaren 13an, ostiralean, arratsaldeko
19:30etan hasiko dira emanaldiak. Lehena,
Leioako Udal Musika taldearen kontzertua.
Horren ostean, Musikale jaialdira Brasil eta
Errumaniatik ailegatutako fanfarreek giroa
alaituko dute, Udondoko kioskoan egingo

den erromeria baino lehenago.

Larunbatean, berriz, goizetik izango da
zer ikusi, gozatu eta entzun. Herri kirolekin
eta bertsolariekin hasi ostean, eguerdi parte-
an globo aerostatikora igo eta Udondo goi-
tik ikusteko aukera izango da. Zorabiatzeko
joera dutenek, nahiago badute, joko lasaia-
goetan aritu ahal izango dira 13:30etatik
aurrera. Umeentzat soilik, erne. Arratsalde-
ko txokolatada eta gero, *Golden Apple Quar-
tet* donostiarrek beren emanaldi umoretsue-
tako bat eskainiko dute gaueko hamaiketan
eta, amaitzeko, erromeria izango da gaueko
hamabi eta erdietan. Larunbat osoan zehar
ere hainbat herrialdeetatik etorritako fanfa-
rreek musikaz alaituko dute Udondo. m

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T. : 94 491 13 94

Herria iruditan

UK-k “**Leioa, atzo eta gaur**” taldeak bildutako argazkiak dakarzkizue



1983ko uriolen eraginez Lamiakoko lehengo tren geltokia urpean

Kontua aspaldidanik dator. Duela
25en bat urte, Leioako gau eskolako ira-
kasle biri ikasleei argazki zaharrak eskat-
zea eta haiekin erakusketa egitea buru-
ratu zitzairen. Halaxe egin zuten, eta era-
kusketa haren atzetik gehiago etorri
ziren. Urteak joan, urteak etorri, argaz-
kien bilduma gero eta potoloagoa egin
zen; azkenik, *Leioa, atzo eta gaur* elkar-
tea sortu zen duela pare bat urte edo,
argazkiok bildu eta liburu bat osatzeko
asmoz. Irudiak eta informazioa pilatzen
jardun dute eta, zailtasunak zailtasun,
laster helburua lortzeko itxaropenez
daude. Honezkero 1.200 argazki ingu-
ru biltzea lortu dute; horietako batzuk
UKri utzi dizkiote, eta guk zuei erakut-
siko dizkizuegu ondorengo sei hilabete-
etan.

Lehenbiziko honek 1983an Lami-
kon izan ziren uholdeak dakarzkigu
gogora, berriki Bizkaiko hainbat herri-
tan izandako eurite itzelen ondorioak
oraindik igar daitezkeen honetan. Ur
azpian dagoena, hain zuzen, Lamiakoko
lehengo tren geltokia da. m

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20º ANIVERSARIO
URTEURRENA

AENOR
R
Empresa
Registrada
ER-1891/2001

AENOR
GA
Gestión
Ambiental
CGM-02/006

KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Villa de Plentzia, 18 behea
48930 Las Arenas | Getxo
Bizkaia

Tel.: 94 464 51 66
Fax: 94 480 54 70
e-mail: vasa@euskalnet.net

Euskara merkataritzara!

Euskara Zerbitzuak **“Euskara Erandioko merkataritzara”** kanpaina martxan jarri du, horretarako Siadeco enpresa kontratatu du

Euskara Zerbitzuak sustatzen duen kanpaina honen bidez, euren negozioetan euskarari leku handiagoa egiteko aukera dute herriko dendariek eta tabernariak. Izan ere, dendaz denda eta tabernaz taberna joan dira Siadecok prestatutako inkestatzaileak, jendearen jarrera eta hizkuntza gaitasuna aztertzearekin batera, udalak merkatarien eskura jartzen dituen baliabideak azaltzeko. Fernando Simón euskara teknikariak azaldu

digunez, merkatariek erantzun ona eman diote kanpainari, eta itzulpen zerbitzua izan da, bereziki, gehien eskatu dutena. Ordutegiak, prezioen zerrendak, jendaurrean erakusten dituzten kartelak eta bestelako idazkiak itzultzeko eskatu dute, oraingoz, 192 establezimendutan. Errotuluak euskara hutsean zein elebitan jartzeko dirulaguntza eskariak ere jaso dituzte Euskara Zerbitzuan, baina kasu honetan, kanpaina hasi zenetik

hamar bat besterik ez dira izan. Merkatarientzako ordutegi murritzeko ikastaro bereziak irailetik aurrera antolatuko dituzte Udal Euskaltegian, interesa agertu dutenekin ordutegirik aproposenak zehaztu eta taldeak osatu ondoren. Kanpaina abian jarri zenetik gure denda eta tabernetako hizkuntza-paisaia aldatu egin da pitin bat, eta euskarak leku apur bat irabazi duela esan daiteke. m

Garbiñe Monasterio > dendari eta euskaltzalea

“Euskaraz gero eta kartel gehiago ikusten da dendetan”

Euskara eta merkataritzari buruz hitz egin dugu Garbirekin, Obieta kalean duela 30 bat urte bere amak ireki zuen dendan bertan.

—Zuen dendako atean euskaraz egiten duzuela jartzen du. Horrelakoak izan dituzue lehenagotik ere, ala Euskara Zerbitzuak egindako kanpainaren ondorio dira?
—Lehenagotik ere izan ditugu. Duela urte batzuk Berbots euskara taldeak horrelako kanpaina bat egin zuen, eta “hemen euskaraz” kartelak banatu zituen. *Bai euskarari* kanpaina ere izan da eta beti jarri izan dugu zezker. Kanpaina berriek beilegi geratu diren kartelak aldatzeko balio dute, behintzat.
—Zuk euskara ikasi duzu eta ikasten jarraitzen duzu. Zeintzuk dira dendan euskara erabiltzeko oztopo nagusiak?
—Euskara maila eta ohiturak, batez ere. Nik oraindik ere baditut zailtasunak eta hori oztopoa da, baina askorekin egiten dut beti euskaraz. Gero badago beste jende mordo bat nahiz eta euskalduna izan erdaraz hitz egiteko ohitura duena.
—Dendari Elkarteko kide ere bazara. Zelako harrera izan du kanpainak dendarien artean?
—Jendeak oso ondo hartu du, eta euskaraz



Argazkian, Garbiñe Monasterio bere dendako atean

gero eta kartel gehiago ikusten da dendetan. Gainera bakoitzari bere alorreko hiztegitxoa ere eman digute. Gero garrantzitsua da jakitea edozein itzulpen nahi izanez gero udalera jo eta berehala egiten dutela, eta ez dugula orain arte bezala lagunei mesedeak eskatzen ibili behar.
—Dendari elkartearen ekintzetan erdarazko kartelak dira oraindik nagusi...
—Bai egia da erdara hutsez egiteko ohitura

dagoela, eta euskaldunek eta euskaltzaleek aldatzeko eskatu behar dugula, bestela erdaldunek ez dute premiarik izango eta. Sarritan neure burua bakarrik ikusi dut euskara erabiltzeko eskatzen, eta ea beste kide batzuk ere euskara agertzearen garrantziaz ohartu eta eskatzen duten. Beharrezkoak dira honelako kanpainak, eta udalak eskainitako erraztasunak aprobetxatuz beste pausu batzuk emateko aukera daukagu. m



Joan dira San Agustinak

Baina berdin da, gero eta gutxiago falta da-eta datorren urtekoetarako. Hementxe dituzue lehenengo egunean hartu genituen irudi batzuk. m



▲▲▲▲▲

LAIK
Taberna

▲▲▲▲▲

Tlf. 94.6760328

Bentatxu, 2
48600 - Sopela

Inportaziozko
zerbeziak
onenak

Terraza
zabala

basartena

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

Jose Luis Zarraga > Karreteroa

“Arriagako idi-mantak baserriko kortara eroatea da nire ilusioa”

Idi-proba zale ugari bizi da Arriaga auzoan, eta hainbat dira karretero lanetan ibili direnak ere. Gaur egun, berriz, Arribiti baserriko Jose Luis Zarraga “Txuflitas”ek baino ez du ofizioan jarraitzen. Beragaz egon gara Arriagako Artetxe tabernan eta garagardo baten aurrean zaletasuna aitarengandik jaso zuela aitortu digu: “Aita umezurtz geratu eta hamar urtegaz hasi zen uztarritik tiraka. Bizi osoa eman zuen idi-probetako giroan”.

Gaur egun giroa eta zaletasuna beherantz joango direla esan eta honela erantzun digu: *“Zaletasuna barru-barrutik sortu eta txikitatik lantzen da; batzuentzat aspergarri da baina niri, behintzat, futbola baino askoz gehiago gustatzen zait”*. Harrotasunez azaldu digu probalari gisa aritzeko lan latza eta dedikazio handia behar direla. *“Egunero hiru edo lau ordu eman behar ditut idiekaz: jagon, jaten eman, uztartu eta goitik behera ibili behar da idiekaz”*.

Joseren egunak hogeita lau ordu baino gehiago duela ematen du: *“Niretzat eguna goizeko bostetan hasten da, ordu bat ematen dut idiekaz eta banoa lanera. Arrastiko bostak edo seiak inguruan lanetik itzuli eta uztarriari eutsita idiak prestatzen beste hiru bat ordu ematen ditut”*. Eta harritasun keinuaz begiratu gaitu probetan idiak sufritu egiten duela eta horrelako ekitaldiek aurkariak ere badituztela aipatu diogunean: *“Probetan lan handia egin behar dute idiek, baina idiak egunero jagon behar dira. Gaur egun ez dute goldearekin lanik egiten, elikadura ere berezia dute eta ondo jagonda daude. Karreterua bera da idia ondo zainduta edukitzeko interesik*



Argazkian, Jose Luis Zarraga

handiena duena”.

Bizkaiko plaza guztietan ibili izan da Jose. Hala ere, aitortu digu gaur egun di-tuen idiak nahiko arruntak direla. Handiak dira, bai, baina ez dira ondo moldatzen edo-zein karrejutan, eta Arriagakoan bereziki gaizki ibiltzen dira. *“Karreju estua da eta ez dute buelta ondo egiten”*. Eta Josek horixe du erronka, aspalditik irabazi gura baitu bere plazan. *“1974an irabazi zuen gure aitak*

“Egunero hiru edo lau ordu eman behar ditut idiekaz: jagon, jaten eman, uztartu eta goitik behera ibili behar da”

Arriagan eta hortik aurrera bigarren postuan geratu izan naiz; Arriagako idi-mantak Arribiti baserriko kortara eroatea da nire ilusioa”.

Probetan idi mantak baino dirua gehiago mugitzen dela esan diogunean pentsakor

geratu da. Kinieletan jokatzten den dirua ez da asko eta karreju inguruko giroa berotze-ko balio du, bere ustez. *“Beste kontu bat dira desafioak; horrelakoetan milioi bat peze-ta ere jokatzten da apustu batean”*.

Bestalde, idiak aurkitzea gero eta zaila-go da. Euskal Herrian idi gutxi dago eta kanpora joan behar du uztarriak osatzeko. *“Asturiasera, Soriana, Zamonara edo Burgo-sera joan behar bada, ba, hara joaten naiz uztarri egokiaren bila. Niri idi gazteak gustatzen zaizkit, hiru urte ingurukoak eta ez da erraza izaten aurkitzea, leku askotara joan behar da”*.

Idiak erosi eta gero, hiru urte gehiago ibili behar da uztarria zaintzen eta prestatzen karrejuetan ibiltzeko. *“Niri ez zait gustatzen idiak itotzea plazarik plaza ibilita; nahiago dut apurka-apurka landu, eta normalean idiak 8, 9 edo 10 bat urte egiten ditu nigaz baliokoa bada. Ezpabere, harakinaren eskuetan uzten dut”*. m

Tolosako iturritik edaten

Jorge Martin Luquek bere **oporrak** kontatu dizkigu

Udarako planak egiten hasi eta lagun baten aurre-esperientziak bultzatuta, HA-BEren plangintza batean murgildu nintzen nire euskara maila hobetzeko asmotan: “Familia euskaldunetan egonaldiak” zioen panfletoak.

Joan aurretik zera pentsatu nuen: uzta- il osoa goizeko 5:00etan altxatu eta baserriko lanetan aritu beharko dut hangoekin berba egin ahal izateko; baserrikoek bere alaba ezkon ezinarentzako senargaitzat hartuko naute. Justu-justu kontrakoa aurkitu nuen. Tolosako etxe bat egoki zitzaidan. Baina mendian galdutako baserri bat izan beharrean, Tolosa erdiko pisu bat izan zen. Mutilak ziren guztiak, ez zegoen neskarik.

Etxekoek bikain zaindu ninduten, batez ere janari kontuan. Halaber, euskararen gainean neuzkan zalantzak ederki argitu zizkidaten. Bigarren egunerako etxeko bat nintzen. Eta, zorionez, Xabi etxeko semerik nagusienaren koadrila parranda zale, kirol-zale eta bertsozale zen; nire saltsan beraz. Kasualitatez, Xabi hau Algortako Fredy Paya bertsolariaren laguna da.

Primeran pasatu nuen. Hilabetea parrandan, mendian (Aizkorri, Txindoki...)



Argazkian, Jorge Martin Luque

eta inguruko herrixkak ezagutzen eman nuen. Etxeko eta hango lagunengandik laguntza baino ez nuen jaso, ezin gusturago.

Esperientzia erabat baikorra izan da alde guztietatik. Euskaraz 24 orduz aprobetxatu nuen, pozaren pozez, eta uste dut maila hobetu dudala.

Bizi izan dudana bizi ondoren, euskara ikasten dagoen oro animatzen dut plangintza honetan murgiltzeko. Inguru eta jende berriak ezagutzeaz gain, euskara ere ikasi egingo duzue, benetan. m

EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AITORMENA EGIN DUTE 150 ERANDIOZTARREK

Udalbiltzak bultzatutako ekimenez, EHNA egiteko bulegoa izan dute zabalik Erandion, beste leku askotan bezalaxe, eta 150 pertsona izan dira Euskal Herriko Naziotasun Aitormena egin dutenak. Eskatutako agiriak aurkeztu (errola egiaztagiria, argazkiak), ordaindu beharrekoa ordaindu eta bete beharreko orriak bete ondoren nahikotxo itxaron behar izan dute Udalbiltzaren eskutik Naziotasun Aitormena eta txartela eskuratzeko.

Oraindik ez dira guztienak iritsi eta jendea jasotzeko irrikitan dago. Bulegoak zabalik egon direnean hurreratu ez direnak ere galdezka ari dira ea berriz zabalduko ote dituzten, eta baietz esan digute. Irailetik aurrera astean behin izango dira zabalik Astrabuduko eta Altzagako bulegoak. Beraz aukera izango dute oraindik egin ez dutenek.



4 bide pinturak

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Ituribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

etxean jaso nahi baduzu, **deitu!**

94 491 1337
*goizez

UK Urbe Kostako Aldizkaria / Ametz 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48900 Gesto / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

Non daude kateak?


Alberto Díez ikertzailearekin berba egin dugu Berangoko elizari lotutako kondaira baten gainean. Dioskunez, **kontakizun** ilun horrek benetako **gertakari** batean izan dezake oinarria

Ez dakigu zein urtetan, Hirutasun Santuaren egunean, mairuen preso zegoen Berangoko seme bat herriko elizaren alboan agertu zen, kutxa handi bat eta kateak zekartzala. Kondaira da, noski, baina, kondaira askok bezala, badu egia zati bat.

Alberto Díez historia-ikertzailea da, besteak beste. Alor horretan egin duen lanik aipagarrienetako bat “Berango, 40.000 años de historia” liburua da, eta bertan aipatzen dituen iturrietako bat Juan Ramon Iturritza da, XVIII. mendeko historiagilea.

Díezek azaldu digunez, Iturritza nahiko historiagile zintzoa zen, baina XVIII. mendean oso hedatuta zeuden gaitzetako batzuk ere bazituen. Esaterako, guztien ahotan zebiltzan istorioei jaramon egitea, haien fidagarritasunaz gehiegi arduratu barik. Berangoko elizan agerturiko presoaren kontakizuna multzo horretakoa da, Díezen ustez.

“Iturritzak kondaira hori aipatzen du bere kroniketan”, dio Berangoko ikertzaileak. “Antza, mairuen preso egon zen Momoitio etxeko gizon bat agertu ei zen elizaren inguruetan. Sorbalda gainean kutxa bat eta kateak zekartzan. Iturritzaren arabera, kutxa galdu egin zen, baina kateak eliza barruan lotu ziren, gertakizun minagarri haren oroigarri”. Orduan, non daude kateak? Berangoko elizan ez behintzat. Ez da aurkitu kate haiei buruzko inongo dokumentaziorik. Beraz, ezin ziurtat jo inoiz eliza barruan egon zirenik. Horrek eta istorioaren ezaugarri bitxiak dena gezur hutsa izan daitekeela pentsarazten digute.



Alberto Díez “Berango, 40.000 años de historia” liburuaren egilea

Hala ere, Alberto Díezek bere liburuan jasota daukanez, kondaira honen jatorria benetako istorio bat da seguruenik: “Egia da Pedro Momoitio izeneko berangotar bat

«1622ko agiri batek frogatu egiten du Pedro Momoitio izeneko berangotar bat mairuen preso egon zela»

Argelen edo mairuen beste hiri batean preso izan zela, Bizkaiko artxibo probintzialean aurkitu nuen agiri batek hala adierazten du eta”.

Agiri hura Berangoko hainbat lagunek sinatu zuten 1622an. Bertan, Pedro Momoitiokoaren askatasuna ordaintzeko behar zen dirutza lortzeko (1.100 erreale, diru asko garai hartan), euren ondasunak



Gaur egungo dorrea 1901ean amaitu zen

hipotekatzeko prest agertzen ziren. Tamalez, ez dakigu gizajoa bizirik askatu zuten ala ez, baina hori beste kontu bat da. m



Berango hiri izateko bidean

Etxeak eraikitzeaz batera, herriko “**zenbakiak**” ere handitu egin dira. Kale gehiago dago; eta horietan, jende gehiago

Azken urteotan, berangotar peto askok komeriak izaten ditu kanpotar batek herriko kale batez galdetuz gero. Hainbeste aldatu da herria denbora laburrean! Duela hamar urte inguru hasi ziren Berangon etxe berriak perretxikoak bezala “ugaltzen” eta, ondorioz, gaur egun, herriak itxura zeharo berria du.

Hain zuzen, 1992tik hona hogeita bat kale, pasealeku, bide eta parke berri sortu dira lehenago baratzak eta zelaiak baino ez zeuden txokoetan. Kale horietako batzuk ezagunagoak egiten zaizkie bertakoei, herriko baserri zaharren izenak dituztelako: Lukategitxu, Kantina, Berangotxu... Beste batzuk, aldiz, kokatzeko zailagoak suertatzen dira. Ba al dakizu, adibidez, non dagoen Lauzarra kalea? Eta Iberkure ibilbidea?

Kale berrietan jendea bizi da noski. Biztanle kopuruan izandako aldaketak ez dira berehala igartzen, jende askok lehengo herrian erroldaturik jarritzen due-

lako denboraldi batez. Baina hamar urteren buruan gorakada nabarmena izan da: egun, Berangok 1992an baino 1.243 biztanle gehiago ditu, eta dagoeneko 5.000tik gorako herria bihurtu da. Eta hau ez da oraindik amaitu. m


Biztanle kopurua Berangon urtez urte 1992-2002	
1992	4.134
1993	4.308
1994	4.378
1995	4.459
1996	4.645
1997	4.675
1998	4.721
1999	4.830
2000	5.138
2001	5.230
2002	5.377



Bestelako gaiak

Drogak
Politika
Bidaia
Osasuna
Sexualitatea
Munduko
Literatura

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

Telletxe 15, Algorta
T: 460 71 62 - 460 42 44



amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

BISITATU
GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kizol moda



350 M²
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

[berango]

Emilio Garcia > pilotaria

“Pilota **lanbide** baten modura har daiteke, beste munduko ezer ez izan arren”



Emilio, bere lehen pilotakaden lekukoa izan zen Berangoko frontoian

Bizkaian hamabosten bat eskupilotari profesional dago, lehen eta bigarren mailak kontuan hartuta. Horietatik, Emilio Garcia berangotarra dugu Uribe Kostako bakarra. Sei urterekin hasi zen orduan sortu berria zen Berangoko taldean, eta iazko apirilean egin zuen lehen saioa bigarren mailako profesional modura. Ordudanik, Besagain enpresarekin dihardu 26 urteko mutil honek. Dagoeneko ez da, beraz, Berangoko klubeko pilotaria, baina harekin harremana mantentzen du, bertako mutikoen entrenatzaile baita.

Emiliok palmares ederra eskuratu zuen zaletu mailan: Euskadiko txapeldun bitan, Espainiako txapeldunorde beste bitan, Europako txapeldun, torneo ugari... Ia dena banakakoan.

Irabazi eta irabazi, Besagainek fitxatzea erabaki zuen. Hala ere, eta pilotarekin batera, beste lanbide batean ibili da duela gutxi arte, egur biltegi batean. Baina horrek ez du esan nahi pilotaren kontura

bizi ezin daitekeenik. “*Hau lanbide normal baten modura har daiteke*”, azaldu digu, “*gauza handirik ere ez*”. Partiduko kobratzen du eta ez du segurantzaz sozialik, baina aurreko lanpostuan bezainbeste irabazten du. “*Kontua zera da*”, dio, “*pilotan ezin daitekeela luzeegi iraun*”.

Orain, pilotan zerbait garrantzitsu egiteko gogoz dabil. Horregatik utzi zuen aurreko lana, “*kirolean bete-betea aritu ahal izateko*”. Gimnasioan aritzen da, korrika... Bere maila bereko pilotariekin entrenatu ahal izateko, Bergararaino joaten da lantzean behin, Besagainek han daukan egoitza batera.

Tira, eta noizko lehen mailara? Bada, bigarren mailako banakako txapelketa irabazitakoan, noski. Emiliok ez du uste erraza denik, baina ezinezkoa ere ez: “*Banaka beti ibili naiz indartsu, baina ez dut ondo prestatzeko astirik izan. Ondo entrenatuz gero, zerbait polita egin nezake. Irabazi? Ez dakit, zaila da, baina, zergatik ez?*”. m

[berango]

TAILERRAK

Pintura eta marrazkia (helduentzat)

Astelehenetan eta ostiraletan,
19:00 - 21:00.

Egur-lanketa

Astearteetan eta ostiraletan,
19:00 - 21:00.

Altzarien zaharberritzea

Astelehenetan 10:00 - 13:00, eta
ostegunetan 18:00 - 21:00.
(Santan Anako egoitza berrian)

Margoa eta marrazkia (umeentzat)

Astelehenetan eta asteazkenetan,
17:00 - 19:00.

Antzerkia (umeentzat)

Larunbatetan, 12:30etatik
13:30etara.

Kainabera eta zumezko altzariak

Asteazkenetan, 19:00 - 21:00.
(Santa Anako egoitza berrian)

Areto-dantza

Lehenengo taldea: ostegunetan,
19:00 - 20:30.
Bigarrena, egun berean,
20:30 - 22:00.




Tailer batzuk Santa Anako kultur etxe berrian egingo dira

Ekimen ugari oporren ostean berriro datoz tailerrak

Irailaren 16tik aurrera Kultur Etxeak antolatutako tailerretan izena emateko epea zabalik egongo da. Baldintza bakarra Berangoko erroldan agertzea izango da. Herritik kanpokoek, berriz, tokiren bat geratzen ote den zain egon beharko dute. Eskaintza baino eskari gehiago daukaten tailerren kasuan, zozketa egingo da.


Ohiko tailerrez gain, Kultur Etxeak zenbait berrikuntza ezarri nahi ditu. Alde

batetik, argazkilaritza ikastaroa berreskuratzeko ahalginduko da; bestetik, 4 eta 7 urte bitarteko umeentzako musika eskolak emateko proba egingo da. Ludotekari dagokionez, adinaren arabera banaketa mantenduko da, baina aurreko, eskaria handia dela ikusita, ordu gehiago izango da txikienentzat. Gainera, gazteak berpizten saiatuko dira, oraingoan Santa Anako egoitza berrian. m




ALGORTA

dj.ak
antzerkia
erakusketak



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



urdaitegia • frutadenda • elikagaiak
Amezi 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

[albuma]



Belarra

Nekez uler daiteke gure paisaia belar barik. Porlana da gaur egun bere etsairik handiena, batez ere gure eskualdean. Hura gogorra eta zurruna da, belarra berriz, haizeak berak ere, hara eta hona kulunkatzen du. Belarra eta belardia; isilpeko maitaleen etzalekua eta behien enpatxuzko amets berdea. Belarra udan ebaki eta negurako gordetzen da, belarboletan gaur egun, belarmetetan lehen. Belarra erretratatu du gure argazkilariak.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



[berbetan]

Telebistan hasi baino lehenago, Anjel Alkain antzerki munduan ibili zen batik bat eta beraz, ez zen batere eza-guna. Baina *Sorginen Laratza* saioan agertzen denetik, gauzak erabat aldatu dira. Telebistak aktore moduan luzitzeko aukera eman dio eta berak ikusleak harrituta utzi ditu bere imitatzeke gaitasunarekin. Hainbat pertso-naia antzezteko gai da Anjel eta antzezpen hauei esker, ospe handia lortu du gure artean. Iaz, Euskal Aktoreen Batasunak, telebistako aktore onenaren saria eman zion.

Anjel Alkain

Aktore umoretsua

Testua: **Javier G. del Herrero** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—Aktorea, komikoa, imitatzalea, aurkez-lea... Zer da Anjel Alkain?

—(Barre) Aurkezlea izatea tokatu zait, baina tokatu izan zait aisialdiko begiralea izatea ere eta beste gauza asko. Komikoa, noski, ez naiz; beste gauza bat da komikotasa lantzea aktorearen ikuspuntutik, pertsonaiekin, baina ni ez nintzateke aterako txistak kontatzen telebistan Anjel Alkain bezala... Nik aktore izateko ikasi nuen.

—Nola izen zen hori?

—Hemen Donostian zegoen Eusko Jaur-laritzaren Antzerki Eskolan. Ikasi, ez dakit asko ikasi nuen baina primeran pasatu nuen. Nire bizitzako hiru urterik onenak

izan zirela pentsatzen dut askotan.


—Geroago, telebistan hasi baino lehen, antzerkian lan egin zenuen. Diru aldetik, argi dago telebista aukeratuko zenukeela, baina, oro har, zer duzu nahiago?

—Argi utzi nahi dudana zera da, telebista bolada baterako dela eta, gainera, txiripaz sortzen den aukera bat. Baina ni bikoizketa aktorea naiz orain dela hamar urtetik eta nire soldata hortik ateratzen dut gehien bat. Horrez gain antzerkia ere egiten dut; konpainia bat daukagu, Ankagorri izena duena; sei urte daramatzagu eta gustura nabil hau guztia egiten, nahiz eta antzerkia oso gogorra den; furgonetarekin ibili behar da leku

batetik bestera, muntatzen, desmuntatzen... Teorian aktoreentzako politena antzerkia da, baina telebista niri asko gustatzen zait, baina kontuz; gustatzen zait *Sorginen Laratza*-ko erritmo horretan. Nire ustez *Sorginen Laratza*-k badu lotura apur bat kale antzerkiarekin; kalean bezala, publikoa aurrean daukazu eta zerbait sortu daiteke. Hori niri izugarri gustatzen zait.

—Zelan eta zergatik hasi zinen *Sorginen Laratza* saioan?

—Probarik egin ez dudan lehenengo aldia izan zen. Programa horretan daudenak elkarrekin lan egindakoak dira. Hor daude Oskar Terol, Lourviers-ekoa eta Kike Díaz





LABUR-LABUR

Izena: Anjel Alkain.

Adina: 36 urte.

Jaioterria: Donostia baina urte askoan Andoainen eta andoaindarra sentitzen naiz. Orain Asteasura joango naiz bizitzen.

Zaletasunak: Mendizalea naiz. Txirrindulaz ibiltzea ere gustatzen zait, baina bi urteko ume bat daukat eta, beraz, astirik ez.

Liburu bat: *La caverna*, Saramagorena.

Pelikula bat: Aspaldi honetan ez naiz joaten zinera baina *El hijo de la novia* adibidez asko gustatu zitzaidan.

Kantari bat: Ruper Ordorika. Asko gustatzen zait.

Haurtzaroko irudi bat: Olatu batek botatzen nindueanean, trago bat hartu eta ahoan gelditzen zitzaidan itsaso gustua.

Akatsik nabarmenena: Ez naiz bat ere diziplinatua.

aktorea gidoilari lanetan, aktoreen zuzendaritzan Iñaki Irastorza da... Guztiek ezagutzen naute eta ondo egin nezakeela pentsatzen zutenez, lana eskaini zidaten.

—Zelan sortu ziren antzezten dituzun pertsonaiak? Gidoilariak sortuak dira ala antzerkian zenbiltzanetik antzezten dituzu?

“Euskaraz pentsatutako pertsonaiak dira eta nik uste dut horretan asmatu dugula, jendeak oso hurbilekoak somatu dituelako”

—Teorian gidoilariak proposatzen dizkigute pertsonaiak, baina hain giro ona daukagu saioan ezen nik ere pertsonaia batzuk proposatzen ditut. Euskaraz pentsatutako pertsonaiak dira eta nik uste dut horretan asmatu dugula, jendeak oso hurbilekoak somatu dituelako.

—Imitaziorako berezko dohainak dituzula esango zenuke?

—Bai, beti gustatu izan zait asko. Antzerki eskolan irakasleak imitatzen nituen eta erraz xamarra ateratzen zaidan zerbait dela esan dezakegu. Ni tipo umoretsua naizela pentsatzen dut eta lanean ere saiatzen naiz hori

askok esaten du Jose Miguel Barandiaran dela, baina ez da egia. Txiripaz atera zen. Nik betaurrekoak bi minutu falta zirela jarri nituen, txapela hartu eta platora atera nintzen. Arana edonoren aitona izan liteke. Aititengan dago oinarrituta. Edozein aitite izan liteke, baina ez da inorena.

—Gidoia jarraitzen duzu beti?

—Bai; hori azpimarratu nahi dut; gidoi batekin lan egiten dugu beti. Askotan inprobisatzen dut, baina badakit nondik nora joan behar dudana. Inprobisatzea eta nahi duzuna egitea ez da gauza bera.

—Egunero programa bat egiteak nekagarria izan behar du...

—Nik horrela nahiago dut eta ez diot diru aldetik soilik. Egunero saio bat egiteak soltura handia ematen dizu; praktikatzeko balio du.

—Telesaioan horrenbeste denbora irautea espero zenuen?

“Komikoa, noski, ez naiz; beste gauza bat da komikotasuna lantzea aktorearen ikuspuntutik, baina ni ez nintzateke aterako txisteak kontatzen telebistan Anjel Alkain bezala”

praktikatzen.

—Antzezten dituzun pertsonaien artean, zein da gehien gustatzen zaizuna?

—Bat aukeratu beharko banu..., agian Jose Antonio Arana aukeratuko nuke. Jende

—Ez. Dagoeneko bi urte egin ditut baina ez nuen sekula pentsatuko bi urte egingo nituela telebistan. Hilabete baterako zela pentsatzen nuen baina funtzionatzen duela dirudi eta hor jarraitzen dugu. Hala ere,



“Telebista zerbait puntuala da”

lehen esan dizudan bezala, nire ustez telebista zerbait puntuala da eta nik ez dut horrekin kontatzen.

—Nola hartu zenuen Euskal Aktoreen Batasunak iaz eman zizun telebistako aktore onenaren saria?

—(Barre) Ondo. Gertatzen dena da ez nagoela ohituta sariak jasotzera. Bizitza osoan hiru sari baino ez ditut jaso; lehenengoa ping-pong txapelketa batean izan zen eta

beste biak iaz eman zizkidaten. Ez naiz bate-re sari zalea baina, noski, gustura hartu nuen, gehien bat ez nuelako inondik inora espero. Eman zidaten Argia sariak ere ilusio handia egin zidan.

—Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak epe laburrean?


—Printzipioz *Sorginen Laratza*-n eta antzerkiarekin jarraituko dut. Bestetik, Euskadi Irratiko *Goizean Behin* saioan ere kolabora-




Robertogaz Tour-ean

Tourra zein gogorra den ulertzeko han egon behar dela diote adituek eta horregatik Frantziara hurbildu ginen Euskaltel Euskadi-ko Roberto Laisekarekin egoteko; bera izan da Uribe Kostako txirrindulari bakarra azkeneko Tour-ean; gure ordezkaria eta gure itxaropena... Robertoren ondoan lasterketa honetaz biziki gozatzeko aukera izan dugu, nahiz eta ezinezkoa izan den iazko garaipenak errepikatzea.

Argazkiak: **Aitor Galbarriartu**



HASI AURRETIK. Lasterketa baino lehen asko dira txirrindulariek igaro behar izaten dituzten azterketa medikuak eta analisiak. Kirolariak hain lehiaketa latza korritzeko sasoian ote dauden jakin nahi izaten da horrela. Argazkietan, Roberto Tour-eko mediku ofizialekin. Goian eskuinean, Roberto Tour-ean parte hartzeko sinatu zuen unea.



ETAPA BAINO LEHEN
Goian, Roberto erlojuaren kontrako proba hasi baino lehen pentsakor bere taldekideak alboan dituela; ondokoan, proba hasi baino lehen beroketa lanak egiten gurgpilean.






MARTXAN. Tourrean guztira 3.280 km korritzen dituzte txirrindulariek 21 egunean. Ez da txantxa, gero! Tartean, besteak beste, Pirinioak eta Alpeak eskalatu behar dituzte, erlojuz kontrakoak egin... Goian, Roberto Pirinioetan gora, argazki txikietan erlojuz kontrakoan eta behean, Tour-eko beste une batzuetan.




LEHER EGINDA. Tour-a aurrera joan ahala gero eta gehiago nabaritzen dute nekea txirrindulariek. Baina mendiko etapak izaten dira beti gogorrenak. Txirrindulariek leher eginda amaitzen dute eta euren aurpegiak ikustekoak izaten dira. Halako batean Robertori hartutako ondoko irudiok berez hitz egiten dute.



TOUR-AREN DATUAK

- Aurtengo aurrekontua: 34,87 milioi euro (5.800 milioi pta.)
- 4.000 pertsona eta 1.500 ibilgailu mugitu ziren egunero txirrindulariekin batera. Tour-eko auto ilara ikaragarria zen.
- 465 komunikabidetako 2.200 kazetari, argazkilar, kamara eta tekniko ibili dira azkeneko Tourra jarraitzen.
- Mundu osoko 35 telebistak Tourra zuzenean eskaini zuten eta beste 75ek diferituan.
- Tourra 170 herrialdetan ikusi izan da. Guztira mila milioi ikuslek jarraitu dute lasterketa.
- 440 antolatzaile, 12.000 jendarme, 9.000 polizia eta 3.000 funtzionari ziurtasunaz arduratu dira.



GAURKO ETAPA AMAITU DA. Baina arnasa apur bat hartzeko astia baino ez dute izaten kirolariek. Berehala kazetariak gainean izaten dituzte. Gero, masajearen ordua ailegatzen da. Behean ezkerrean, Roberto, dagoeneko hoteleko gelan eguneko zoramena apur bat ahaztu nahian irakurtzen. Kasu honetan UK hautatu du. Biharamunean beste etapa gogor bat izango du.



Miriam Ocariz > diseinatzailea

“Hemengo estiloa oso serioa da, ausardia eta kemen falta igartzen da”

Denon ahotan dabil Miriam Ocariz diseinugile gazte bilbotarra. 1994an bere kabuz lanean hasi zen; bi urte geroago bere lehenengo arropa bilduma aurkeztu zuen bakarka eta gaur egun euskal diseinugilerik ezagunenetariko bat izateaz gain, moda sari ugari irabaziak ditu.

—Noiz eta zergatik erabaki zenuen diseinugile izan nahi zenuela?

—Egia esan, txikitan ez neukan batere argi. Arropa gustatu izan zait beti, baina ez nekien ondo nondik abiatu nire bizitza. Geroago arte ederrak eta diseinu ikasketak egin nituen. Gauza biak bateragarriak zirela ohar-tu nintzenean, arropa egitea gustukoa nuela ikusi nuen.

—Hasierak mundu honetan ez ziren batere errazak izango... Emakumea izateak lagun-du edo kaltetu dizu?

—Hasiera oso gogorra izan zen, bai, baina lanbide hau aukeratzen duten guztientzat gogorra izaten da beti. Ez dut uste emakumezkoa izateak kaltetu nauenik.

—Zelan eramaten da ospea?

—Nire kasuan behintzat, txarto. Oso neka-garria da, oso itogarria. Modaren mundua hain arin mugitzen da eta hainbat lan ezberdin biltzen ditu (negozioa altxatu, diseinuak, elkarrizketak,...), ezen batzuetan itoko zaituela ematen du. Gainera, izen bat lortzen denean, aurrerantzean askoz gehiago eskatzen dizute. Ezaguna izatean ez dago atsedetik; erritmoa eta epeak beste batzuek ezartzen dituzte eta bat ezin da hortik atera.

—Zelan definituko zenuke zure lana, diseinatzen duzun arropa?

—Nire arropak ezaugarri propioak ditu eta erraz ezagutzen da. Lehen esan dizudan bezala, nik arte ederrak eta diseinua ikasi nituen. Horregatik beharbada, nire diseinuan eta, batez ere, marrazkiak eta ebaketa berritzaileak dira ezaugarri azpimarragarrienak.

—Zein jende motarentzat dira zure diseinuak?

—Oso galdera arrunta da hori, askotan egin didatena. Egia esan, oraindik ez dakit zelan



Argazkietan, Miriam Ocariz Deustuko bere lantegian eta berak diseinatutako arropak

erantzun. Nire arropa, eta arropa oro har, naturalak direnei ondo gelditzen zaie. Diseinatzen dudana bitartean ez zait sekula burutik pasatzen norentzat den esku artean darabildana.

—Zein material eta kolore dira gehien erabiltzen dituzunak?

—Koloreak, ba zuria, krudoa, okela, beltza eta arrosa dira gehien gustatzen zaizkidanak eta gehien erabiltzen ditudanak. Kotoia, zeta eta lihoa berriz, nire ehun kutunak dira.

—Zelan jantzi behar du mutil batek sexi egoteko? Eta neska batek?

—Sexia, berez bada bat edo ez da. Bat sexia egon daiteke bakero eta kamiseta batekin, baina arropa berbera txarto gelditu ahal zaio

beste norbaiti. Nire ustez, adibidez, eskoteak sexiak dira, baina arropa itxia janztea are sexiagoa iruditzen zait. Sexi joateko, sexi sentitu behar da bat.

“Hemen ez dago atsedetik; erritmoa eta epeak beste batzuek ezartzen dituzte eta ezin gara hortik atera”

—Ezinbestekoa da asko gastatzea txukun egoteko?

—Bai eta ez. Ondo jantzita joan zaitezke, modan, txukun... eta horretarako ez da ezinbestekoa asko gastatzea. Baina beti da posible apur bat dotoreagoa janztea, eta

horrek bai, bere prezioa dauka. Hala ere, dotoretasuna ez du arropak ematen, edo behintzat ez arropak soilik.

—Euskal Herrian, oro har, jendea ondo janzten da?

—Oro har bai; hemengo jendea txukun doa, baina estiloa oso serioa da, gehiegizkoa. Ausardi eta kemen falta igartzen da.

—Bukatzeke, Miriam; zein kolore eta estilo eramango dira negu honetan?

—Bilduma guztiak oso antzekoak dira; iazkoaren eta aurtengoaren artean ez da alde handirik izango, biek oinarri klasikoa baitaukate. Guk aurren, koadro, kate eta tanta estanpatuekin eta kolore arrosak, beltza eta krudoak proposatuko ditugu. ^m



Atzerrian ikasleak

Gero eta gehiago dira atzerriara ikasketak osatzera ateratzen diren gazteak. Ikasi ez ezik, kultura eta bizimodu berriak ere ezagutzen dituzte eta jeneralean poz-pozik itzultzen dira guztiak. Atzerrian ikasle gisa izan diren gure eskualdeko lau lagunekin egon gara. Hauxe kontatu digute.

Testuak: Javier G. del Herrero Argazkiak: Asier Mentxaka



“Birritan pentsatu barik bueltatuko nintzateke hara”

Ane Belaurrekoetxea. 22 urte, Getxokoa. Urtebete Liejan


Frantziara joatea nahiago zuen, baina bizitzak Liejara (Belgika) eramane zuen. “Atzerriara ikastera joan nahi nuen baina ez nuen bekarik lortu. Azken unean neska batek buts egin eta Liejara joateko aukera suertatu zitzaidan”, argitu zigun Anek. Algortakoa da, 22 urte ditu eta aurten kazetari izateko ikasketak amaitu ditu. “Atzerrian egonda gauza asko ikasten dira. Bakar-bakarrik nengoen eta behar nituen gauzak nire kabuz lortu behar nituen. Ardurak hartzen ikasteko oso baliagarria izan da”, azaldu zigun. Hala ere, belgiar gehienek jarrerak harritu du Ane. “Herrialdea zoragarria da eta oro har oso gustura egon nintzen, baina batez ere hemengo jendearekin harremanetan egon nintzelako. Hangoekin ez zegoen modurik. Esaterako, ikaskideek nahiz eta gu ezagutu, ez ziguten kalean agurrik egiten; oso hotzak ziren. Pentsa ezazu, hamar hilabetetan lagun belgiar bakar bat baino ez nuen egin”. Edozelan be, Anek ez dauka zalantzarik; “Karretera bukatu dut eta beraz ezinezkoa da, baina birritan pentsatu barik bueltatuko nintzateke”. m

Estibaliz Gómez. 21 urte, Algortakoa. Rotterdamen

Zuzenbidea ikasten ari da Estibaliz, Algortakoa da, 21 urte ditu eta iazko irailean, Erasmus programarekin Holandara joan zen ingelesa ikastera. Horrela laburbildu zigun bere bidaia: “Orain apur bat damutzen naiz, baina han aspertu nintekeelakoan, hiru hilabeteko baino ez nintzen joan. Ingelesa ikasi nahi nuen, baina nik uste ez bezala, Holandan ez da apenas ingelesik entzuten. Horrez gain, jendea oso hotza da tratuan, oso itxia. Asko kostatu zitzaigun harremanak egitea”. Hala ere, eta nahiz eta Rotterdamen denbora gutxi igaro, oro har, han bizi izandakoa oso aberasgarria izan dela esan zigun Estibalizek. “Hiru hilabete amen batean pasatzen dira. Harremanak egiten dituzunerako, etxera bueltatu behar da bat. Hori bai, han eman nuen denbora horretan bakarrik bizitzen ikasi nuen, janariak egiten...”. Hurrengo bidaia Estatu Batuetara egin nahiko luke. “Orain dela asko egon nintzen eta atzera joango nintzateke, baina Erasmus programarekin ezinezkoa da, horrekin Europako herrialdeak baino ezin dira aukeratu”. m



“Holandan jendea oso hotza da tratuan, oso itxia”




“Quebec-en, aldi berean frantsesa eta ingelesa ikasteko aukera daukat”

Xabier Paia. 20 urte, Algortakoa. Quebec-era joan da


Itzulpengintza ikasten ari da Xabier Paia Gasteizko Filologia Fakultatean, horrez gain bertsolari ezaguna ere bada herrian. Aurten, karrerako hirugarren ikasturtea atzerrian egitea erabaki du. “Beka eskatu nuen eta eman didatenez, kurtso hau Laval Unibertsitatean egingo dut”. Abuztuan alde egin zuen eta maiatzera arte, Xabier Kanadan egongo da. “Hemen ikasturtea ezberdina da. Kurtsoan zehar ez dago apenas jai egunik, baina bestetik, ikasturtea, maiatzean bukatzen da”, azaldu zigun. Ordura arte, Xabier ikasleentzako egoitza batean biziko da Quebecen. “Esaten dutenaren arabera, Quebec Ameriketako hiririk europarrena da. Frantsesa eta ingelesa, biak, hizkuntza ofizialak dira han. Bestetik, Europako hainbat herrialdetan gertatzen den legez, Quebecen arazo politiko garrantzitsu bat ere badago: herritarren erdiak independentziaren aldekoak dira, besteek, Kanadaren zati izaten jarraitu nahi dute”. Eta zergatik Quebecera? “Ikastera etorri naiz; hemen frantsesa eta ingelesa ikasteko aukera daukat”. m

I. Elordui-Zapatarietxe. 25 urte, Areetakoa. Sei hilabete Italian

Abokatua izateko ikasten dabil (bosgarren mailan dago) eta ikasketen aitzakiarekin, iaz Italiara joan zen Erasmus programaren eskutik. Bete zuen eskaeran hiru leku aukeratu zituzkeen eta Ikerrek Italian aukeratu zituen hirurak; Milan, Florentzia eta Genova. Azkenean Genovara bidali zuten. “Italia oso herrialde erakargarria irudituko izan zait beti. Gainera, hizkuntza eta obiturak oso antzekoak dira. Eta horregatik erabaki nuen hara joatea..., eta ez naiz damutzen. Oro har, jendea oso irekia da, oso atsegina eta beti dago laguntzeko prest. Oso esperientzia polita eta aberasgarria izan zen. Europako bazter guztietako jendea ezagutu genuen eta baita lagun handiak egin ere. Batzuekin onaindik ere harremanetan jarraitzen dugu”. Ea zer izan zen gehien gustatu zitzaiona galdetu genionean, Ikerrek ez zuen zalantza izpirik; “Italiako iparraldeak: Milan, Trento... Genova, berriaz, ez da hain polita, ‘hiria-hiria’ da. Hala ere, ahalik eta lasterren bueltatuko naiz, baina ez ikastera, oporretan joango naiz”, esan zigun. m



“Europako bazter guztietako jendea ezagutu nuen”



ARENALA, BILBO. 1988



TROCADERO, PARIS. 1988

Juan Luis **Markaida**



Argazki hauek ikusita aurkakoa eman badezake ere, Juan Luis Markaida algortarra (Bilbo, 1957) argazkilari zaletua da, ez da profesionala. Ogibidez irakaslea da. Hamalau urte zituela hasi zen aitaren kamararekin argazkiak hartzen eta horretan segitzen du. *Itoiz* musika taldeko kideen laguna da eta haien emanaldietan ehundaka argazki hartu zituen bere garaian. Haien, disko biren azalak ere bere argazkiekin egin ziren. Utzi dizkigun lan hauetan igarri daitekeenez, ironiaz beteriko bere argazkiak kalean hartzen ditu nagusiki. Une erabakiorra, zehatza bilatzen du eta baita aurkitu ere. Bere lanak besteak beste, Bilboko K2 tabernan eta hainbat kultur etxetan erakutsi ditu.



D'ORSAY MUSEOA, PARIS. 1988



SALURDO, LLEIDA. 1997



ASTE NAGUSIA, BILBO. 1999



VICTORIA, BRITISH COLUMBIA, KANADA. 1994



GARGANTUA, ASTE NAGUSIA, BILBO. 1999



TROCADERO, PARIS. 1988



HERRI KROSA, BILBO. 1998



EREAGA, ALGORTA, 1986



ALGORTA. 2000



EREAGA, ALGORTA. 1999



NEGURI. 1994



MOIUA, BILBO. 1989



LEIOA. 1991



KERMAN, AITA ETA KATUA. 1988

Maitasuna zeluloidean

Duela gutxi historiako maitasunezko film onenen **zerrenda** aurkeztu du American Film Institute-k. Guztien artean Michael Curtiz zuzendariaren **Casablanca** ahaztezina gailendu da

3 onenak



Casablanca (1942)
Zuzendaria: Michael Curtiz.
Aktoreak: Humphrey Bogart, Ingrid Bergman.
Sinopsia: Birritan galdutako maitasun baten istorio latza eta gordina esaldi ospetsuz eta mamitsuz beterik, Casablancan, Marokon.



Lo que el viento se llevó (1939)
Zuzendariak: Victor Fleming, George Cukor, Sam Wood.
Aktoreak: Clark Gable, Vivien Leigh.
Sinopsia: Gerra garai gorrietan, emakume gogor batek nahi duen guztia lortuko du..., gauza bat izan ezik: maite zuen gizona.



West Side Story (1961)
Zuzendaria: Jerome Robbins.
Aktoreak: Natalie Wood, Richard Beymer.
Sinopsia: Romeo eta Julietaren istorioa 60ko hamarkadako New York-en, non bikote baten maiatsuna taldeen arteko arazo eta borroken gainetik nagusituko den.



Casablanca filmeko fotograma bat

Esan bezala, Amerikako Zine Institutuko kideek *Casablanca* film ezaguna aukeratu berri du historiako maitasunezko filmik onena, *Lo que el viento se llevó* eta *West Side Story* pelikulen aurretik. Guztira ehun filmek osatzen dute zerrenda hau, gehienak klasikoak. Lehenengo hogeitau postuetan ia ez dago film berririk (berrien artean, *Afrikatik Urrun* adibidez hamahirugarren postuan sailkatu dute, *Hechizo de luna* hamazazpigarrenean eta *Ghost* hemeretzigarrenean) eta *Titanic*, azkeneko urteotan egon den filmik arrakastatsuenak 37. sailkatzea baino ez du lortu. Epaimahai honen arabera, maitasunezko istorio gehienek (hamarretik zazpi) bukaera txarra daukate eta protagonistak banatu egiten dira. Hala ere, aztertutako 400 film hauetan maitasunezko eszenak (260) borrokazkoak (187) baino gehiago dira. ^m

20 onenak

1. **Casablanca** (Michael Curtiz, 1942)
2. **Lo que el viento se llevó** (Victor Fleming, 1939)
3. **West side story** (Jerome Robbins, 1961)
4. **Vacaciones en Roma** (William Wyler, 1953)
5. **Tú y yo** (Le McCarey, 1957)
6. **Tal como eramos** (Sydney Pollack, 1973)
7. **Doctor Zhivago** (David Lean, 1965)
8. **Que bello es vivir** (Frank Capra, 1946)
9. **Love story** (Arthur Hiller, 1970)
10. **Lucas en la ciudad** (Charles Chaplin, 1931)
11. **Annie Hall** (Woody Allen, 1977)
12. **My fair lady** (George Cukor, 1964)
13. **Memorias de Africa** (Sydney Pollack, 1985)
14. **La reina de Africa** (John Huston, 1951)
15. **Cumbres borrascosas** (William Wyler, 1939)
16. **Cantando bajo la lluvia** (S. Donen, G. Kelly, 1952)
17. **Hechizo de luna** (Norman Jewison, 1987)
18. **Vértigo** (Alfred Hitchcock, 1958)
19. **Ghost** (Jerry Zucker, 1990)
20. **De aquí a la eternidad** (Fred Zinnemann 1953)

Film laburra Snuff 2000

Borja Crespo gazteak zuzendutako komedia beltza Sitges-en estreinatuko da



Argazkian, Borja Crespo zuzendaria; behean, errodajea hartutako irudi bat

Egile polifazetiko honek 35 milimetrotan egin duen lehen film laburra zuzendu berri du: *Snuff 2000*, snuff filmei buruzko komedia beltza eta dibertigarria. Gidoia Miguel Angel Martín komikigileak idatzi du. Bai zuzendaria eta baita gidoilaria ere komikiaren munduan dabilta aspaldian; Crespok *2.000 Maniacos* fanzinean lan egiten zuen. Martín komikigile ezaguna *El vibora*-ko marrazkilaria da eta aurten Europako marrazkilaririk onena izendatu dute. *Snuff 2000* euren harreran onaren fruitua izan da. Filmak 9 minutu irauten du (Getxoko *Gaurik laburrena* zikloan trailerra proiektatu zen) eta bertan aktore ezagun asko agertzen dira; halaber,

Susana Guerrero, Antonio Gómez (*El corazón del guerrero*), Dario Paso (*Torrente*) edo Andrés Gertrudix (*La pistola de mi hermano*). Dagoeneko pelikula bukatuta dago eta esan bezala, datorren urrian Sitges-eko zinemaldian estreinatuko da. ^m



webgida

www.actoresvascos.com



Euskal aktoreen elkartearen orrialdea. Zine edo antzerkiaren munduan leku baten bila dabilenak orrialde hau bisitatu beharko luke. Solasgunea, aktore izateko ikastaroei buruzko informazioa, inkestak...

www.tlm.unavarra.es/asignaturas/bi/bi98_99/bi17/INDEX.HTML



UPNAko ikasle bik egindako web honek euskal zineari buruzko datu ugari biltzen ditu; halaber, euskal aktore, zuzendari, gidoilari eta teknikarien biografiak, filmografiak...

wwwa013.infonegocio.com/825/vasco/



Euskal zinearen historia ezagutzeko ezinbesteko orrialdea. Katalunia, Espainia zein atzerriko zine indutriei ere badute bere lekua site eder honetan. Horrez gain, lotura ugari.

Donostiako Zinemaldiak

urrezko **urteurrena** ospatuko du aurten

Euskal Herrian dagoen Zinemaldirik ospetsuenak, Donostiakoak, 50 urte beteko ditu aurten eta merezi duen bezala ospatzeko, antolatzaileek egitarau zabala prestatu dute. Zinemaldia irailaren 19an hasi eta 28ra arte luzatuko da. Bederatzi egun hauetan izar handiak pasatuko dira Donostiatik eta gaur egungo zine ekoizpen onenak gozatzeko aukera paregabea edukiko dugu. Sail Ofizialean 18 film lehiatuko dira urrezko maskorra eskuratzeko. Honez gain, “50eko 50ak” zikloa antolatu da eta 50eko hamarkadan mundu osoan filmaturiko pelikula onenen sorta bat eskainiko da. ^m

www.sansebastianfestival.ya.com



Zinemaldiko kartel iragarlea

webgida



KEPA JUNKERA
>www.kepajunkera.com
Euskal Folk maisuak badu jada bere web orrialdea. Bertan bere biografia ezagutzeaz gain, hainbat argazki eta bere disko guztiak ikus ditzakegu. Site-ak baditu link-ak ere beste



LA POLLA RECORDS
> www.lapollarecords.net
Euskal Herriko rock&rollaren historia bizia da La Polla eta dagoeneko Aguraineko taldeak badu web orrialdea; diskografia, dataoen kontzertuei buruzko informazioa, bideoak, denda eta solasgunea eskaintzen ditu.



BENITO LERTXUNDI
> personal.redestb.es/mcfer/
Benito Lertxundiren biografia eta diskoak ezagutu nahi dituenak badauka nora joan; web honetan kanta batzuk entzun eta jaisteko aukera izateaz gain, Internautak argazkiak eta diskoen portadak lor ditzake.

Rudo&Friends Sound System

dantzalekuak alaitzeko lagun taldea

Rudo&Friends sound system 2001eko abenduan jaio zen gero eta aspergarriagoak diren dantzalekuak berpizteko asmoarekin. Eta harrezkero ez dira gelditu: Bilboko Aste Nagusian, *James Taylor Quartet* taldearen teloneroak izan ziren Gas enparantzan, eta bestetik, Bilboko *Arrebato*, Donostiako *Candela*, Baqueira Beret-eko *Pachá* edota Berangoko *Purgatorio* aretoetan jo dute.


Taldeak, DJ batek sesio batean erabiltzen dituen baliabideak (biniloak eta CDak) eta musika elektroniko emanaldietan hain

ohizkoak ez diren osagaiak (ahotsa eta musika tresnak) erabiltzen ditu. Disk jokeya Rudo Rudolph (Borja Serra) da eta bere lagunak: Afrika Bibang (ahotsa), Garikoitz Aldekoa (perkusioa) eta azkenik, Isr@ (kitarra eta ahotsa).

Diskoteka zein klubetako soinuak (batez ere *house*) ahalik eta jende gehiengana helaraztea dute helburu. Hori bai! Emanaldi dibertigarria eskainiz. Orain Katalunia aldean jotzen dabilta. m

Harremanetarako: 667 418 850

Ezkerretik eskuinera, Isr@, Gari, Borja eta Afrika



Erradiografia



Zurt taldeko kideak euren pankartaren atzean

Nondik dator izena? *“Radar’ deitzeko asmoa genuen baina erregistratuta zegoen. Gero, Zurt aukeratu genuen”.* **Jaio ziren:** 2000ko urtarrilean Iñaki Susunagak taldea martxan jarri zuen. **Taldeko kideak:** Iñaki Susunaga (gitarra, koroak), Jabi Arruabarrena (ahotsa), Iker Eskurtza (gitarra), Jon Liébana (bateria), Edu Fernández (baxua). **Nongoak:** Iñaki Susunaga (Erandio), Jabi Arruabarrena (Busturia), Iker Eskurtza (Sestao), Jon Liébana (Miranda), Edu Fernandez (Bil-

bo). **Gustukoa dute:** Blues, heavy, trash, rock melodikoa... **Diskoak:** Iaz, IZ Records-en eskutik lehenengo diskoa plazaratu zuten: *Itxaropena*. Durangoko azokarako bigarrena ateratzeko asmoa dute: *Aurrerantz*. **Besteak beste jo dute:** Kafe Antzokian, Bilboko jaietan, Ibilaldian... **Hizkuntza:** Euskara. **Euskal musikaren egoera:** *“Negargarria. Oso zaila da zuzenean jotzea. Talde berriek oztopo handiak dituzte jotzeko eta bi, hiru disko dituztenek ere, jai daukate”.* m

Harremanetarako: Iñaki 679 867 753

diskoak

Xiberoa
Batzuen artean
Elkarlanean



Diskoaren izenak dioen moduan, Zuberoako usaina dario lan honi. Bederatzi kantari sarritan ahaztuta daukagun lur honi kantari: Lertxundi, J. M. Bedaxagar, Pantxoa eta Peio, Erramun Martikorena, Etxahun Iruri, Maddi Oihenart eta Dominika Etxart, Jean Bordaxar, Pier Paul Berzaitz, eta Robert Larrandaburu.

Expedición
Silvio Rodríguez
Distribución



Kubak eman du kantaririk ezagunena besapean disko berriarekin azaldu zaigu berriro. Ibilbide luzen baten ondoren, azken lan honekin, abeslari kubatarra bere hastapenetara bueltatu da. Diskoa osatzen duten 12 kante bere mundu ilun, poetiko eta aldi berean desiragarrian murgilduko zaituzte.

Down the road
Van Morrison
Polydor



Urteetan aurrera joan arren Van Morrisonek sasoi bete-betean jarraitzen du. Azkeneko disko honetan bere betiko estiloa igarriko du entzuleak: musika tresna ugari (saxoak, armonikak, organoak...), erritmo bizia, soinu beroak, ozenak, hunkigarriak... Hamalau kanta maisuaren magia gozatzeko. Oso ona.

> Nire kanta kutunak MIKEL MARKEZ



EUSKARAZKO KANTA KUTUNAK


- 01. M. Labeguerie 1964. urteko bi single
- 02. Joxe Mari eta Mikel
- 03. Josu eta Jokin “Nire herria bezala”
- 04. Xabier Lete “Kantatzera noazu”
- 05. Benito Lertxundi “Zuberoa-Askatasunaren semeei”
- 06. Mikel Laboa “Bat-hiru”
- 07. Itoiz “Itoiz”
- 08. Niko Etxart “Has dantzan”
- 09. Kortatu-Cicatriz-Jotakie-Kontuz Hi
- 10. Hertzainak “Hertzainak”

ERDARAZKO ONENAK

- 01. Paco Ibañez “Olimpia”
- 02. Deep Purple “Made in Japan”
- 03. Queen “Queen Live Killers”
- 04. Weather Report “8:30”
- 05. Carlos Puebla y los tradicionales “La Bodeguita de el Medio”
- 06. Víctor Jara “Te recuerdo Amanda”
- 07. Silvio Rodríguez. “Al final de este viaje”
- 08. Javier Krahe-Joaquín Sabina-Alberto Pérez “La mandrágora”
- 09. Janos Starker “Variations on a rococo theme, Tchaikovsky”

José María Cundín > artista

Alde egin zuen artista



Argazkian, José María Cundín

Jose María Cundín getxoztarra izen handiko margolari eta eskultorea da. Bere lanak mundu osoko bilduma pribatuetan eta hainbat museotan daude: Kanada, Alemania, Frantzia, Estatu Batuak... Getxon jaio zen 1938an, San José egun eguzkitsu batean. 18 urte zituela atzerrira abiatu zen mundua ezagutzeko asmoz eta ez da itzuli. Aspalditik AEBn bizi da.


—Noiz jakin zenuen margolari eta eskultore izan nahi zenuela?
—Hamasei urte nituenean Bilbon zegoen *La Cocina* arte aretoko jabeak nire lan bat erakusteko aukera eman zidan. Gustukoa zuela esan zidan eta horrek konfiantza handia eman zidan. Geroago arrakastatsuak suertatu ziren erakusketa batzuk egin nituen Kolonbian, Estatu Batuetan eta Europako hainbat herrialdetan.

—Noiz erabaki zenuen Estatu Batuetara bizitzera joatea?
—Kolonbian hiru urte eman ondoren, lana zela-eta herriz aldatzea erabaki nuen eta New Yorkera abiatu nintzen. Han eskultore eta margolari handiekin lan egiteko eta ikasteko aukera eduki nuen, ikastaroak eman nituen eta asko ikasi nuen. Beste lagun batzuekin *Nueva figuración* deitu zen mugimendu estetikoak abian jarri genuen.



“Egunero Annapoliseko portura jaisten naiz, ekialderantz begiratzen dut eta hodeiertzearen gainetik agurtzen zaituztet”

—Lanean jo eta ke jarraitzen duzu. Non izango da zure hurrengo erakusketa?
—Hurrengoa irailean egingo dut New Orleans-eko Academy Galleryn. Han aurkeztuko ditudan lanen artean argazkietan ikus daitezkeen batzuk daude.
—Orain Annapolis-en, Maryland Estatu hiriburuan bizi zara, Washington DC hiriburutik 30 minututara. Nolako da zure gaur egungo bizitza?
—Marion Assumta Gill-ekin ezkondata nago, lau seme-alaba dauzkagu eta Maryland Hall izeneko erakunde ofizialean egiten dut lan artearen inguruan. Nire estudio propioa ere badaukat eta han nire lan pertsonala garatzen dut.
—**Bizitza osoa atzerrian eman duzu. Oroitzen zara inoiz Euskal Herriaz?**
—Bai; egunero Annapoliseko portura jaisten naiz, ekialderantz begiratzen dut eta



hodeiertzaren gainetik agurtzen zaituztet. Keinu hau aspalditik egiteko ohitura daukat, errito berezia da niretzat, ohitura ona iruditzen zait.
—**Euskal Herrira etortzen zara inoiz?**
—1956an, 18 urterekin, Kolonbiara joan nintzen mundua ezagutzeko asmoz eta ordutik hainbat lekutan ibili naiz, baina tarteka askotan Algortatik pasatzen nintzen. 1983ra arte ez nuen saldu han neukan etxea. Baina urteak joan urteak etorri, ezkondu, seme-alabak nituen eta azkenean Euskadira joateari utzi nion. Gaur egun ia ez naiz joaten baina ez dut inoiz Euskal Herria ahazten; Deustu, Bilbo... eta jakina, Algorta. 1999an obelisko bat eraiki nuen nire herriaren omenez. m

01: The sentimental buoy, Obelisco algortean.
02: Leaning obelisk for the city of Pisa (proiektuan)
03: The movil obelisk for the movement party of Spain (proiektua). 04: You look marvelous (1997)

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Beste bizitza batean

Aztoratuta etorri zitzaidan laguna, nekez lortu nuen behin eta berriz errepikatzen zuen «ezinezkoa da» hura baino harantzago joatea. Horrelakoetan bera bakarrik uztea hobe dela eta justu une hartan pixka bat lasaitu eta bere ezinegonaren arrazoia azaldu zidan. Kontua nahiko sinplea zen —horrela esan baldin badaiteke—: bera ahalik eta gehien irakurtzen saiatzen zen, baina beti zegoela norbait ezagutzen ez zuen tituluren bat aipatzen ziona. *The Western Canon* (Mendebaldeko kanona) liburuan Harold Bloom kritikari ezagunak dio bizitza bat bakarra dela eta, beraz, denbora gai pre-

ziatuegia da berarentzat hura alferrik xahutzen ibiltzeko. Orain dela urte batzuk erabaki salomoniko bat hartu zuen: pena merezi zuten liburuak soilik irakurriko zituen, eta kito. Eta horrelaxe eratu zuen bere kanoa. Bloomen zerrenda itsu-itsuan ez zuela zertan bete esan nion lagunari, baina irakurtzearena lasaigo hartzeko esan nion. Literatura ez da lasterketa kontua, plazerik gabeko irakurketa baino tortura lazgarrikerik ez baitago munduan. Horregatik, gogoko zituen liburuak irakurtzeko aholkatu nion, besterik gabe. Gainontzekoak beste baterako utzi beharko zituen, beste bizitza batean irakurtzeko. m

liburuak

Road Movie
Gotzon Hermosilla
Zeberr




Gotzon Hermosillak (Barakaldo, 1966) Ameriketako Estatu Batuetan barrena bidaia proposatzen digu. Egileak, auto bat alokatu eta milaka filmetan ikusi ditugun errepide eta autobide galduak zeharkatu zituen, *road movie* baten protagonista baten moduan. Bere bizipenak liburuxka honetan bildu ditu idazle gazte honek.

Gerra da leku honen...
Jordi Serra i Fabra
Elkar



Kazetari gazte batek errusiarren menpe izandako lurralde batera joan beharko du lanera. Han bertako mutiko bat kontratatuko du itzulpen lanak egin diezazkion. Jordi Serra i Fabra, idazle kataluniararen *Gerra da leku honen izena* adiskidetasunari buruzko alegoria bat da, baina, aldi berean, gerraren gordintasuna agertzen digu.

Candida
Bernard Shaw
Ibaizabal



Bernard Shaw (1856 - 1950) idazle handiak (Nobel saria jaso zuen 1925en) feminismoa landu zuen bere antzerkietariko batzuetan, eta honetan lehenengoz. Gizonak gogorra eta sendoa izan behar ote duen, edo gogor eta sendoaren itxura ematea benetan gogorra eta sendoa izatea ote den, horiek darabiltza antzerki honetan, azkeneko ustekabera heldu arte.

Sei lore
Txema Garcia-Viana
Susa



Zaleak asko badira ere, nobela beltz gutxi idazten da gurean. Txema Garcia-Vianak segituan irakurlea harrapatuko duen jenero honetako lana osatu du. Trama, tartean arnak, irakurleari ezagunak gertatu zaizkion lekuetan kokatu du, Bilbon eta inguruetan; San Frantzisko auzoko putetxeetan, Santurtziko portuan, Txurdinagan, Zazpi Kaleetako kale ilunetan...

webgida



IRRATIA
> www.irratia.com

Euskal Herriko lehen irrati digitala duzu hau. Zuzeneko programak eta grabatu-takoak nahasten dira zeure gustuko programazioa sor dezazun. Era guztietako gaiak jorratzen ditu: globalizazioa, euskara, kultura, zientzia, musika...
Merezi du sartzea, ez bakarrik euskara hutsa erabiltzen dutelako, baizik eta kalitatezko irratisaioak egiten dihardutelako.

Hizkuntza: euskara


EZ GEZUR HORI HEDATU!
> www.nonprofit.net/hoax

Ziria sar ez diezazuten, irakurri noizean behin “Ez gezur hori hedatu!” webgunean. Bertan batzen dira Interneteko punta batetik bestera zabalitzen diren gezur galantak inozo berriak ager ez daitezzen, zeren eta Sarea ere, mundu erreala bezala, bihotz oneko pertsonaz beterik dago.


Hizkuntza: ingelesa

MUSIKA ENTZUTEKO
> www.winamp.com

Winamp ordenadorean musika entzuteko programarik onenetakoa dugu, batez ere musika MP3 arxivotan dagoenean. Hilabete mordoia bigarren bertsioarekin egon ostean, atera berri da hirugarrena



Testuak: Iker Merchán / iker@merchan.com



Askea eta euskaratua

Ordenadorearekin **euskaraz** aritu nahi izanez gero **Linux** aukera dotorea da

Munduan bada Windows baino gehiago. Horra hor adibidez Linux sistema eragilea, mundu osoko milaka lagun bolondres programatzen eta mantentzen dutena. Eta, “zoro” horien artean badira euskaldunak ere noski, eta euren zereginetan sistema hau euskaratzea egon da.

Argi izan behar dugu ez dagoela Linux bakarra; beraz, ez dago kasu zehatz bakar bati buruz hitz egiterik. Dozenaka Linux dira merkatuan (modu batean zein bestean eratuak, baina guztiak erro beretik atera dire-

nak), eta horietatik asko euskarazko bertsioa dute. *Mozilla*-rekin (Linuxen gehien erabiltzen den web-nabigatzailean) gauza bitxia gertatzen da bertsio berria ateratzen denean: galizierara gaztelera baino lehenago itzultzen da, eta horrek hainbat amorru eragiten ditu espainiar eta hegoamerikako erabiltzaileen artean, ez baitute programadore bolondres nahikoa itzultzaile lana egiteko. Euskaraz inoiz gauza bera gertatuko al da? m

Linux-i buruz gehiago jakiteko;
www.linux.org, www.mandrake.org

Zer ote da? GPL

Programak banatzeko lizentzia askea

Sigla kriptiko hauen atzean programak hedatzeko lizentzia mota bat ageri zaigu. GPL-aren beharra jakiteko nahikoa dugu edozein programa komertzialek dakarren lizentzia irakurtzea, ia sinestezinak baitira gehienetan. Bezeroari eskubide guztiak kentzen dizkiote (programa ezin da berriz saldu, ezin da bi ordenadorean instalatu nahiz eta aurrekoa matxuratu...) programaren erruz sorturiko kalteak ez dituzte beren gain hartzen... GPL lizentzia, berriz, askosaz zabalagoa da: programa hori nahi bezala erabili eta alda dezake erabiltzaileak, baina, GPL programa batetik abiatutik berri bat sortuz gero, berri horrek ere GPL izan behar du. Horrela, erabiltzaileok egunez egun programa hobeak dauzkagu (eta, gehienetan, debalde).

GPL-tik gertu BSD lizentzia daukagu. Lizentzia honen pean agertzen diren programak guztiz askeak dira, hau da, BSD programa bati zenbait aldaketa eginez gero modu komertzialean sal daiteke, bere barneko kodea ezkatutaz. Eta hori da, batez ere, GPL-k saihestu nahi duena: beste bat guk egindako lana modu desegokian baliatzea.

aurkitudugu

Txakurrak eta jabeak



Interneten irudi harrigarrik edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra.
Interesgarrienak aldizkarian hilabetero argitaratuko ditugu.
ukaldizkaria@telefonica.net

Lautik batek erabiltzen du internet

Europa Press agentziak emandako datuen arabera, Internetek iratiak beste audientzia dauka eta zineak, eranskinek eta egunkariak baino askoz gehiago. Telebistak eta aldizkariak soilik lortzen dituzte sareak baino erabiltzen datu hobeak. Estatuan 10 milioi internauta inguru daude (biztanleriaren %25) eta batez beste egunero ia ordubete ematen dute konektaturik. Honek bigarren postuan kokatzen du internet, telebistaren atzetik eta prentsa mota guztien aurretik. Azkeneko bi urteetan sarearen erabiltzea %370 igo da eta %800 1997tik.



Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥

ETA AURRERANTZEAN

ordenagailuen zerbitzu teknikoa

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

% 94 676 00 62- Fax:94 676

BILBOMICRO



“1982az geroztik
soluzio
informatikoak
eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoa: 4230213



Testua eta argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray**

MUNDUKO BAZTERRAK ZIMBABWE-ZAMBIA

Victoria urjauziak



1855ean Afrika australa gizon zuriarentzat guztiz ezezaguna zenean, Livingstone doktorea, bertakoek “burrunba egiten duen kea” izenarekin ezagutzen zuten lekura hurbildu zen bere kanoan. Aurkitutakoak txundituta utzi zituen espedizioako kide guztiak eta Livingstonek bere bidaiaren liburuan horrela definitu zuen gertaera: “Afrikan ikusi dudako gauzarik zoragarriena da”. Berak Victoria izenarekin bataiatu zituen urjauziak zituen aurrean.

Harrezkero mende eta erdi igaro da eta denbora horretan, milioika lagun erakarri izan ditu leku honek, europar aurkitzailearen faszinazio bera sentituz.

Amildegia kilometro eta erdiko zabalera, 100 metroko jauzia eta minuturo milioi eta erdi litrotik gorako ur kaudalak, Victoria urjauziak munduko ikuskizun handienetarikoa bat bihurtu dituzte.

Ni han
Victoria Falls-era heldu nintzen eta automobiletik jaitsi baino lehen, ume eta gazte mordoa zain neukan han. Artisau lanak, ekintza turistikoak, Zimbabweco dolarrak, hatxisa eta beste hainbat produktu saldu nahi dizkirate. Merkataritza beltz hau oso arrunta da, begibistakoa. Haur guztiei ezet



Victoria urjauziek 100 metroko altuera baino gehiago dute leku batzuetan

esaten saiatzen naizen bitartean, inguruan dabilen polizia batek ezikusiarrena egiten du txistua joz eta begirada infinitoan jarria. Nahiz eta iluntzen ari zuen ur jauziak ikusteko irrikitan nengoen. Hamabost minutu baino ez ziren falta ur jauziak babesten dituen parkeko ateak zarratzeko baina, hala ere, hara abiatu nintzen uraren zaratak er

“Bertakoek orroe egiten duen kea deitzen diete”

karrita. Denbora gutxi neukan, zuzenean urjauziaren ekialderantz abiatu nintzen ur jauzia eguzkiaren argipean ikusi eta gozatze-ko. Han gelditu nintzen, liluratuta, tonto aurpegiarekin, lagun gutxiko aurpegia zeu-

kan zaintzaile batek joateko eskatu zidan arte. Denbora gutxi egon nintzen beraz, eta handik atera nintzen buruan hurrengo eguna noiz helduko zen besterik ez nuela.

Bisitarien pentzura bizi den Victoria Falls bezalako hiri batean gauzez hainbat gauza egin daitezke. Lastozko sabaia eta lurrezko zorua zuen lokala aukeratu nuen nik. Han, gerlari batzuk euren arbasoen dantzak antzeztzen zituzten.

Biharamunean, ordu gutxi baina sakon lo egin ondoren eta egunak argitu baino lehen, han nengoen ni parkeko atean, ur jauziak ikusteko irrikitan.

Ur jauziak, bere osperik handienean, leku eta angelu guztietatik ikusteko denbora hartu nuen. Uraren orroa gortzekoa zen eta ura, erori bezain pronto airean altxatzen

zen berriz, paia saia are gehiago edertzen zuen etengabeko ortzadarra sortuz. Azkenik ibaia ertain ibili nituen. Hango landare-di abartsuak pizti ugari biltzen ditu bere baitan. Antzinako esploratzaileek ibaia zeharkatu baino lehen topagune moduan erabiltzen zuten “Zuhaitz handia” miresten denbora eman nuen. Baobab erraldoi honek 25 metroko garaiera du, baina bere 20 metroko zirkunferentziagatik askoz handiagoa dela ematen du.

“Orroa oso zaratsua da; ura airean altxatzen da”

Arratsaldean hiriko artisauen azokatik paseatu nintzen. Han tratuak egitea nekagarria izaten da. Bidedendak simple xamarak dira; toldo bati eusten dioten lau makila. Azpian, artisauak esku trebeez egurra lantzen dute.

Biharamunean Victoria Falls atzean utzi nuen, banekien laster hiru herrialde zoragarri deskubritzeko nituela: Zimbabwe, Zambia eta Botswana.

Victoria urjauziak

- **Ibaia:** Zambezi.
- **Herrialdeak:** Zimbabwe eta Zambia.
- **Hiri hurbilena:** Victoria Falls.
- **Zelan heldu:** Hegazkinez, trenez eta errepidetik. Banoa Biadaia eta Club Marco Polo bidai agentzietan eskaintzak egoten dira.

Informazio gehiago:

- www.zambezi.com/vicfall.html
- www.africantravel.com/zimvic.html
- www.vfsl.com/html/resources/res-about-vic/html
- www.go2africa.com/zimbabwe/victoria-falls/

HURBILEKO BAZTERRAK ITSAS LUR

Txangoa iraganera



Ilunabarrek argi berezia daukate Itsas Lur-en



Pobeña herrian, La Arena hondartzaren alboan, ibilbide ederra hasten da, gure arbasoek egin behar izan zituzten lan nekagarriak gogora ekarriko dizkiguna. Kostaldean zehar desagertu nahi ez duen iragan industrialaren arrastoak ikusiko ditugu. Meategietarako trenbidearen gainean egindako bidean, amildegia malkarren ondotik doa bidea, alde bietan behiak eta ahuntzak bazkatzen daudela.

Mac Lennan kargalekua da ikusten den lehenengo gauza, txoko bakarti eta zoragarri batera jaisten diren eskailera batzuen alboan. Apur bat aurrerago, amildegia altu baten labarrean, Gaztelu Zaharra agertzen da, kostaldeko kainoi sorta zaharra. Geroago, igogailu suizida baten itxurarekin, itsasbelarren erauzketarako lantegien arrastoak ikus daitezke, denborari erronka egiten dioten bere kable eta guzti.

Ibilbidea Kobaron izeneko herriaren

ondoan dagoen aparkalekuan bukatzen da. Handik hurbil meategia ugari daude.

Nontzebarrien jakinmina asetzeko, badaude inguruko historia, ekosistema eta geologiari buruzko kartel ugari.

Zelan heldu

- Bilbo-Santander autobia.
- Irteera, Muskiz-La Arena.
- Pobeñarako norabidea (800 m).
- Pobeñan, eskuinean seinalatutik, “Itsas Lur”. Aparkalekua 300 metrora.



Bizkaiko txapelak

Bizkaiko txapelketen historia

Ez beite inor harritu Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2002aren inguruko informazino duztia bizkaieraz emoten badogu (ganera gure Ipar-Uribeko ukututxuagaz); izan bere, aspaldion garrantzi handia emoten izan jako Bizkaiko Txapelketan bizkaieraz kantateari. Halandaze, geu bere, akordu horregaz bat eginik, bizkaieraz emon-go doguz aurtongo udagoienetik aurrera egingo dan txapelketearen inguruko albisteak.

Testuak eta argazkiak: **ALBE**

Bizkaiko txapelketen historia

Lehenengo Bizkaiko Txapelketea 1958ko dagonilaren 24an jokatu zan, Bilboko Arenalean. Alfontso Irigoien zanak eratu eban orduko txapelketea Euskaltzaindiaren uzenean. Puntuak eta gaiak bere berak imini ebazan (Bejoakoz hemeti Alfontso-ri gure eskerrik eta beroenak bertsolaritzearen alde egin dauan behar itzelagaitik). Egun hatan Balendin Enbeita izan zan txapelduna. Haren ostean, haulan lotu ziran garetiko bertsolariak: bigarren Juan Ormaetxe, hirugarren Jose Alberdi, laugarren ASENSIO BIDAURRAZAGA GETXOZTARRA (guk dakigula, Bizkaiko txapelketen historian Asensio hau da goren heldu dan bertsolari getxoztarra; hurrengo Fredi Paia dago, 2000ko finalean bosgarren egin eban-eta); bosgarren Eusebio Zubiaga; seigarren Pedro Kastrejana eta zazpigarren Florentzio Zarraga.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2002

Aurtongo txapelketearen ganeko informazioa urrietako alean eta hurrengoetan emon-go deusuegu luze eta zabal. Oraingoz bakarrik aurreratuko deusueguz gure eskualdea-




Goian, Jon Enbeita muxikarra 1990eko txapela buru ganean daukola. Behean ezkerrean, Igor Elortza eta Unai Iturriaga, aro barriko txapeldun gazteak. Behean eskolan, Jon Lopategi tetratxapelduna Getxon bertsotan.

ri jagokozan jakingarri batzuk. Gure eskualdeko ordezkorik gorena Fredi Paia algortarra dogu, artez sartuko da-eta finalerdietara (pribilegio hori aurreko edizinoko finalista lotu izanak emon deutso). Aurtongo Ipar-Uribeko txapelketatik Etxahun Lekue larrabetzuarra pasatu da artez kanporaketa fasera. Puntutara, barriz, Xabier Paia algortarra (Xabik, baina, ez dau parte hartuko, beka bategaz Kanada aldera joango jakulako), Miren Loizaga sopoloztarra, Ortzi Garitano deriotarra eta Miren Ibarluzea mungiarra. Aitzol de Kastro leioztarra ate-atean lotu da eta batedobatek huts egin ezkeru, bera sartuko da puntuakaitik. Saio duztia non izango direan seguru bere ez dakigun arren, jakin badakigu akabuko

finalerdia Algortako Getxo Antzokian jokatuko dana, aspaldiotako tradizinoari eutsiaz. Aupa bizkaitarrok! m



Iturria: XDZ / Argazkia: Joseba Elosegi



Solaskidearen SOSLAIA

Ondoko test erako galderei zuzen erantzunez gero, Beñat Gaztelurrutia bertsolaria hobeto ezagutuko duzu.

- 1) Zenbat urte ditu oraintxe Beñatek?
 - a) Jesucristok hiltzean zuen adina
 - b) Mende laurdena gehi urte bat
- 2) Nongoa da gure Beñat?
 - a) Abadiñokoa
 - b) Elorriokoa
- 3) Zein ikasketa egiten dihardu Beñat gureak?
 - a) Magisteritza
 - b) Zuzenbidea
- 4) Jarduera hauetatik batean ez da –guk dakigula behintzat– inoiz aritu Beñat: bikoiztaile, irratiko esatari, musika talde manager, dendari. Zein da?
 - a) Musika talde manager
 - b) Dendari
- 5) Beñat idazle baten errepresentantea dugu aspalditxotik. Zein da idazle hori?
 - a) Jon Arretxe
 - b) Josu Lartategi
- 6) Zein urtetan lortu zituen Beñatek Bizkaiko txapela eta Euskal Herrikoa gazteen mailan?
 - a) 1998an
 - b) 1990ean
- 7) Ba al dago bertsolaritzaren inguruko lanik, Beñatek egin ez duenik?
 - a) Agian
 - b) Ez

Erantzunak: 1-b, 2-a, 3-b, 4-b, 5-a, 6-a eta 7-b

10ekotxikian

Be at Gaztelurruti

- 1) Zelan ikusten dozu Bizkaiko bertsolaritzearen egoerea? Bizkaiko Txapelketea kategorikoa jatorku. Bizkaiko bertsogintzearen gaur eguneko osasuna ona dala pentsetan dot, baina hau eteten ez dan gorpila da eta etorkizunekoari begira jarri behar genduke. Hor ikusten dot hutsunea.
- 2) Zein helburu dozu Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2002rako? Inoz ez dodaz txapelketak gustoko izan, joateko obligazioa sentitu arren. Bateko eta besteko, urtebete ia bertsotan egin barik emon dot eta ilusinoa ura lez aldentzen da zirrikitu guztietatik. Nire aurtengo Txapelketa frogatzen izango da, ez badau ondo urtetan ondo pentsatuko dot besterik egongo dan.
- 3) Bizkaiko Txapelketan bizkaieraz kantatuko dozu? Bizkaitarroi jagoko bizkaieraz kantatzea. Ahalegina egingo dot.
- 4) Zein proiektutan sartu zara Bertsozale Elkartearen? Bertsozale Elkartearen jardura ekonomiko guztiak batean biltzea da helburua. Hasieran uste neban baino proiektu garrantzitsuagoa izan leike Elkartearentzat, gauza asko aldatu leikez-eta.
- 5) Norekin egiten dozu bertsotan gustosoan? Aipatu 3 bertsolagun. Hiru izen botaten hasi ezkeru, laugarrena be bota beharko neuke, eta laugarrenaren ostean bosgarrena... Azken urteotan sarritan kantatu dot Arkaitz Ugartetxeagaz, eta esan behar dot oso ondo moldatzen garela alkarren ondoan.
- 6) Zein da inoz egin dozun saiorik surrealistena? Batzuk egin dodaz, eta gehienak gajartzailearen laguntza paregabeagaz.
- 7) Aipatu 3 bertsolari: gehien hunkitu zaituena, gehien irakatsi deusuna eta gehien harritu zaituena. Gehien irakatsi daustana Jon Lopategi da, zalantzarik barik, eta ez maixu izan dodalako, bertsotan entzun izan dodanean be halan izan dalako baino. Gehien hunkitu nabena be bera izango da segurutik, 89ko txapela jantzi ebaneko goizeko bakarreko bertsoekin, eta arratsaldeko kartzelakoekin. Esan leike final hori irakaspen hunkigarri bat izan zala. Harrigarriena, oster, Andoni Egaña izan dala aitortu behar dot. Horrek bertsolari biok jenioen artean sailkatu behar gendukez.
- 8) Zein da buruz gogoratzen dozun zeure bertsorik onena? Behin Abadiñoko taberna baten bertako gizon bati bota neutson kopla bat gogoratzen dodan bakotxean, ondino be barreka hasten naz. Kontestua ezagutu barik balorea galduko leuke, beraz ez dausuet zein dan esango.
- 9) Zer da Uribe Kostatik gehien erakartzen zaituena? Horra hurreratzen nazen guztietan bertso saioaren batera izaten da, eta oso giro oneko koadrilatxo inguratzen dala pentsetan dot. Askok estimatzen dodaz horrek lagunok.
- 10)Gaztetxotan EHko txapela jantzi zenuen. ALBEn gaztetxo koadrila dabil bertsotan ikasten. Emon aholkuren bat bertso batean. Bertsoa da gauza bat / norberalako: bizitza osokoa, / etenik bakoa. Ez da norgehiagoka / ezta be jokoa, baizik traje eder bat / edonorakoa, norbere gustokoa / eta neurrikoa.





Andoni Egaña zarauztarra.



Maialen Lujanbio hernaniarra.



Aitor Mendiluze andoaindarra.

BEGI-BELARRI

Bertso jaialdi mundiala

Futbol mundiala guztien ahotan egon da aurtengo uda hasieran, baina honezkero inortxok ere ez ditu gogorutzen Espainiako taldea mundialetik kanpo utzi zuen golegile hego-korearraren izen-abizenak; uztailaren 10eko Bertso Jaialdi Mundialera hurbildu zirenek, ostera, ez dute behingoan ahaztuko EHko azkeneko txapelketan goren heldu ziren sei bertsolariek Algortan egin zuten kantitate eta kalitate erakustaldia. GAU ESOTERIKOA izan zen ordukoa, eta gai zein ariketa guztiak gai horren ingurukoak izan ziren. Egia esan, ez genekien beldurtzeko moduko gaiek hainbeste barre algara sortuko zutenik, baina kontua da umorea izan zela nagusi saio osoan zehar. Hona hemen zenbait flash komentatu. Argazkiak: **Andoni Crespo Astobiza - ALBE**



Jon Maia zumaiaarra.



Sustrai Kolina urruñarra.



Unai Iturriaga durangarra.



Aitzol de Kastro leioztarrak dotore gidatu zuen entzuleen oso gustuko gertatu bide zen gau esoterikoa.



Hiru mediumak, kandela eta ke artean, joandakoen espirituei deika.



Aitor iragarlea Mikel Goñiren (Sustrai) eskua irakurtzen.



Jende arteko bertsozaleek ere aukera izan zuten euren iragargaiaik sei adituei botatzeko. Erantzunak ez ziren makalak izan.



Kuartela izandako gaztetxean egindako grabazio psikofonikoa aztertu behar izan zuten Maia adituak eta Iturriaga okupak.



Egañiak Lujanbiorengana jo zuen Akelarre bat zelan antolatu ikasteko.



HIRUSTA



Bertsojartzailea: **Nahikari Ayo**
Gaia: **Jaialdi Mundiala:**
GAU ESOTERIKOA
Neuria: **Hamarreko handia**

1
Zeru guztien azpitik eta
sasi guztien gainetik
sei azti etorri zitzaizkigun
Anbotoko magaletik;
Aitzolen itaunak erantzuten
saiaitu ziren gogotik,
egia ala gezurra esan zuten
hori ezin dut esan nik;
laster barru ikusiko dugu
gertatzen den miraririk.

2
Espirituz bete zitzaizkigun
gure Algortako karrikak;
politikariak, emakumeak,
baita ere bertsolariak,
gure artera ekarri zituzten
betez gure eskariak;
esandako hitzak izan ziren
murrizak bezain urriak,
baina sentitutako hotzikarak
benetan izugarriak.

3
Eskuak lotu, sakon pentsatu
etorkizuna argitzeko,
iragarpenak egin zituzten
gure gozamenerako;
gauza ugari esan (e)ta gero
zerbait zuten asmatuko
barre (e)ta algara asko entzun ziren,
pasatu genuen bapo;
SAIO MUNDIALA egin zutela
ez duzue ukatuko!

Emilia Agirre

Aurtengo udan hainbestetan lagun izan ditugun egun goibel horietako batean, Emilia Agirregaz egon ginen berbetan. Emiliak laurogeita bost urte ditu eta jaiotzez Jatabekoa bada ere, Urdulizen bizi da ezkondu zenetik. Gazte-gazterik beharrean ibili da; neskame izan da denbora gehien, baina bestelako beharrak ere egin ditu. Hona hemen, gauza hauen inguruan kontatu zizkigunak.



Erretratuan, Emilia Agirre

Testua: Urtzi Iglesias
Erretratua: Asier Mentxaka

—Nongoa zara Emilia?
—Ni Yatabeko, Maruri. Yatabeko nau ni. Nik Maruri eitzen dot Yatabe baiño. Maruri imiñten dau an, baie a Yatabe ixen da beti. Yatabe, Yatan aspin daolako; gure etze dau olan, ni yaio nintzen etze dau Yatan aspin; bertatik ikusten da Yatako puntie.

—Eta zenbat urte dituzu?
—Larotasei ingo dodas, asko.

—Zer egiten zenuen gartzetan?
—Ni bearren denpora dustin. Nik etxerik urten nindun sortzi urteas, lengusuk kobernaten, gero amar urtegas yon nintzen Bilbora krieda ta an in nindun urtebete. Ta gero aitte yoten san a ferire Santiago egunen, Basurtun, ta yoten san lengusun etzera baskari yaten, ta ni ara yon nintzen aiekana domekatan aiek es urteteko. Eta, “*aitte, nik etzera yon gure dot eh?*” ta “*etzera yon gureo-su? neugas etorko sara*”. Beras yon nintzen etzera, berak eron nindun etzera; baia gero ostabere bearren, krieda ostabere; es dakit nora yon nintzen ni, Balmasedara, osaba fraille Rufino, ain lagunekana yon nintzen ni krieda, ta an es dakitt senbat denpora ein nindun, es nas akordaten. Beti krieda, gero andik yon nintzen ixeko batengana, an ein nindusen urte bi. Gero sanatorion (Gorlizen), ein nindusen bost urte; ordun umek eon siren, oiñ sarrak daus baia len eoten siren neskak bean ta mutillek goien. Ni goien eon nintzen mutillekas, eta an oak ein, garbittu... enfermerak es gintzen les ixen... bueno indixiñok bai.

—Eta Sanatoriotik nora joan zinen?
—Andi serera, Frantzire, gerra sasoin, sanatorioko umekas; ta nik an ille bi ein nusen aiekas ta ille bigarreanean andik errepartidu euresen; batzu yon siren Rusire, ta onau be lotu siren batzu, gero Belgikera yon siren ume asko, Frantziti. Nondi diren oiñ ba! Estakitt oraintzu etorrite eon es badire

—Baina etxean euskaraz egiten zuten, ezta?
—Bai, dana euskere; bixi xiren euskeras. Ak euskera iñ al baeun euskera beti, osabek, ta anajek dustik; danak ixen siren euskadunek

—Eta bestelako beharrik egin duzu?
—Ni krieda ibil nas denpore geienen, baie

“Plentzire yoten nintzen bendeje saltzen; bakarrik yoten nintzen andik basotatik, urune ta indabe eroten”

Rusitik ordun yoniko batzuk. Gustaten niri aiek esetzea. Ta gero andi etor nintzenen, yon nintzen a... beti eon nas krieda ta! Algortara, Algortan akabauren eon nintzen, ein nindusen saspi urte. Eskondu arten, otabederatzi urtegas eskondu nintzen. Krieda beti da bear gogorra.

—Non ezagutu zenuen senarra?
—Topa nindun Algortan, Algortako plasan yantzan gabiltzasela, ori topa nindun (senarrari begira) eta ordun eskondu gintzen eta gaur arten.

etzen eoten nintzenen, Plentzire yoten nintzen bendeje saltzen, bakarrik yoten nintzen, beste egun batzutan lagun bateas, baia geienen bakarrik, andik basotatik, urune ta indabe eroten, salduten. Ardik gobernaten bere bai; se negar eiten gendun guk an ardik yagoten lengusuk eta nik, ni sartzuau lengusu beñio. Gure biximodu olan ixan da ba.

—Familian fraile eta monja asko, ezta?
—Nik asko, monje aiste bere bai bat euki dot. Osabak, bai, aman nebe, aiten anaje, parroko Yatabeko ixan san aman osabe, ta

“Ixeko ingenierus eskondu san les, es eun gure ixekorik esaterik, bai señora edo señorita”

—Zer gertatu zitzaizun izekoren etxean?
—Llodioko ixekogas... ixekonon eon nitzen lengusuk gobernaten, urte biko lengusuk; baie ixeko ingenierus eskondu san les, es eun gure ixekorik esaterik, bai señora edo señorita; ori esateun. Ta niri esin urten, ixeko ixen san, aman aiste ta. Etzakon gustaten, se jente yoten san... ta beran lobeaa krieda ba ori bajatute bera ixeten san. Maistra ixen san.

gero bere ortik... onek Agirrek, orrek jesuitek Venezuelan eon sirenak; aman lengusuk, iru edo, aiek pere. Asko ixan gara gu familin fraille... ta monjak bere bai. m

BERBA BATZUK

Ain: haien / **Bendeje:** genero / **Eun:** zuen / **Euresen:** zituzten / **Gobernatu:** zaindu / **Yagon:** zaindu / **Nindun:** nuen

Gurberbakeria 13 ZELAN ESAN MORBE-RAREN GURARIK

Testua: **Xabi Bilbao**

Zeozar áukiteko edo íteko (egíteko) gurári:

—Zer gure dozu zuk ba?
—Nik hori gúre dot!
—Nik gúre dot zuk dekozune.

—Eztot gúre nik hori.
—Guk eztu (eztogu) gúre hólaurik!

—Ze iñ (egin) gúre dozue?
—Nik Bílbora yon gúre dot.
—Nik gúre dórena da Bílbora yon.
—Durangora, óstera, eztot yon gúre.

Gúrau íxete (gurago/nahiago izatea):

—Zein dozu gúrau? Hau ala béste?
—Nik gúrau dot hau hori béste baño.
—Gúrau du (dogu) guk ure gaseose baño.
—Gúrau dot etzen lotu hórrrekaz gánorabakokaz yon baño.

Gure eskualden erabiltzen direzen berba bi: “gána” (gogo) eta “korréa” (aldartea, adorea).

—Horrek txakúrtxuk ólgetako gáne deko.
—Kánpora goaz afálduten baia nik eztekot gána handirik.

—Gaur eztekot korréarik ezetarako bére.
—Áitxitxek beti auki dau korrée solon bear íteko.

Adibide géhiau:

—Gitárre ikisi gúre dozule? Gánera eléktriku?
—Bai, kuadríllekok gúre du talde bat iñ, músike yóteko.
—Músike yo zúok? Bai, zúok gure dózuena da dánori burukomiñe imiñi.

—Honek morroiak arda eztan gure, gúrau dau ure edan ardau baño.
—Zer ba? Astemio da ela?
—Astemio? Ez, Enrike deko uzena.

BERBA BARRIK

- imiñi: ipini.
- morroi: mutil, tipo.
- uzen: izen.
- solo: ortu, soro, baratze.

Euskara ikasi dute

Olatz Bastida (Leioa)



—Noiz hasi zinen euskara ikasten?
—1992an HABEn. Geroago utzi egin nuen eta karrera bukatu ostean, 1996an, AEKn hasi nintzen.
—Eta bukatu?
—Badakizu, honegaz inoiz ez dela bukatzen. Hala ere, esan liteke 1999tik euskalduna naizela.
—Non ikasi zenuen?
—Leioako AEKren *Lamiak* euskaltegian.
—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?
—Ba gustatu izan zait baina ikasketak erdaraz egin nituen eta nekien gutxia gramatika zen. Nik zerbait gehiago nahi nuen, euskalduna izan nahi nuen, berba egiteko gai.
—Zer izan zen gehien kostatu zitzaizuna?
—Aditzak, berridazketak...
—Zein da garai hartako zure oroipenik onena?
—Egin nituen lagunak eta euskaltegian zegoen giro ederra.
—Gaur egun ikasitakoa erabiltzen duzu?
—Gero eta gehiago; lagunekin, lanean... ahal dudan gehienetan.
—EGA ateratzeko asmorik bai?
—Asmoa bai, baina astirik ez. Lan finkoa lortuko banu, buru-belarri hasiko nintzateke prestatzen.
—Zelan definituko zenuke euskara?
—Nire hizkuntza. Ez da nire ama hizkuntza, baina bai nirea. m



Goian, Jose Antonio Agirre euskaltegiako ikasle talde bat; behean, Lauaxeta eta Udal euskaltegietakako taldeak

Udako euskara ikasleak
Eguzkipean ere euskalduntzen



Uda hondartzan gozatzeko eta parrandak egiteko garaia izaten da. Baina ondo pasatzeaz gain, ikasteko denbora ateratzen dute batzuek eta ikasten ere ondo pasatu dute. Uda honetan, gehienok oporretan egon garen bitartean, lagun batzuk, nagia eta hondartza baztertu eta euskara ikasten ibili dira inguruko euskaltegietan, laster euskaldun petoak izateko asmoarekin. Ez da lan makala izan (batzuetan eguraldiak sasieskola egiten tentatzen zituen eta) baina ikasi eta gero neke guztiak ahazten dira. Guztira ehun ikasletik gora ibili dira jo eta ke udako hilabeteetan Getxoko Lauaxeta, Jose Antonio Agirre eta Udal Euskaltegietan. Argazkiotan uztailean hiru euskaltegi hauetan ibilitako ikasle batzuk ikus ditzakezue. m

Bapiruke Getxon umeek
badaukate aisialdia euskara hutsez bizitzerik

BAPIRUKe da erdarazko “un, dos, tres, carabin carabera” jolasaren euskal izena, eta horixe da, hain zuzen, egitasmo honen helburua, euskaraz jolastea, umeek euren aisialdia euskaraz bizi ahal izatea. Bizarra Lepoan Euskara Elkartekoak bide horretan oraindik hastapenetan badaude ere hainbat urrats eman dituzte. Horrela, maiatzaren 10, 11 eta 12an, 35 ume joan ziren Orioko aterpetxera asteburua pasatzera begirale talde batek lagunduta, eta ekainean eta uztailean hiru egun pasa egin dituzte, 25-30 umeren parte hartzearekin: ekainaren 26an Plentzia eta Gortizera, uztailean 3an Zugaztietara eta uztailean 17an Debara. Irailean berriro ekingo diote BAPIRUKeri honako hauek izanik aurreikusita dituzten ekitaldiak:

- Irailaren 20an, arratsalde partean (adi propagandari) *Takolo, Pirritx eta Porrotx* pailazoan emanaldia Satistegi enparantzian.
- Urriaren 11, 12 eta 13an asteburu pasa Barrian (Araba).



URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEKO EUSKARA ZERBITZUAK urtero udalekuak antolatzen ditu eskualdeko umeak udan euskaraz dibertitu daitezen. Pirata hauek, kostatik urrun, Urdulizen ikusi genituen.

Euskararen Kontseiluak
zerbitzu hobea eskaintzeko webgunea berri du

Kontseiluak euskararen alde lan egiten duen erakundeak, goitik behera aldatu du bere web orrialdea. Aldaketa hauen helburua bikoitza da; alde batetik Kontseiluaren lana eta egitasmoei buruzko informazio zehatza eta zabala ematea, eta bestetik erabiltzaileei zerbitzu baliagarria eskaintzea. Kontseiluak orain dela bost urte sortu zuen web hau www.kontseilua.org helbidean. Bertan, erakundeari buruzko xehetasunak eta berriak aurki daitezke. Honez gain, Kontseilukoek euskararen eta euskalgintzaren inguruko ekitaldi guztiekin agenda bat osatu dute. m / **Helbidea:** www.kontseilua.org

EUSKO JAURLARITZAK
ONURA PUBLIKOKO
ELKARTEA IZENDATU DU AEK

Eusko Jaurlaritzaren kontseiluak onura publikoko elkarte izendatu du AEK, Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak aurkeztutako abalak azertu eta gero. Izendapen hau posible izan dadin, AEK abalatu duten elkarte eta erakundeen artean, Euskaltzaindia, Ikastolen Elkarte, Argia aldizkaria, Topagunea, Gipuzkoako Foru Aldundia, HABE eta Euskal Herri osoko hainbat udaletxe daude. AEK-k 20 urte baino gehiago daramatza euskararen berreskurapen eta garapenaren alde lan egiten eta gaur egun, 15.000 ikasle ditu Euskal Herrian zehar dituen 150 euskaltegi, barnetegi eta gaueskoletan. Eusko Jaurlaritzak datu hauek guztiak hartu ditu kontuan, AEK herri-onurako elkarte izendatzeko. Iparraldeko erakundeek ere aintzat hartu dute AEKren lana. Azkenik aipatu behar da Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak Hego Euskal Herriko erakundeak laguntzak jasoko dituela.



etxean jaso
nahi baduzu
deitu!

94 491 1337

*goizez

UK Uribe Kostako Aldizkaria / Armetzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31
bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Txipiroiak

tipula eta onddo beltzekin

Abrako txipiroia estimatua bezain eskasa da. Hala ere, lortzeak eskatzen duen ahaleginak merezi duelakoan nago ni. Hasteko txipiroi preziatu hauek lortu behar dira, ondorengoa ondo garbitzea da. Irinetik pasatu eta gero oliba oliotan salteatu. Nik berakatzagaz batera egiten ditut, hasieratik zapore hau har dezaten. Txipiroi guztiak salteatu ondorengo olio berean, julianan zatitutako tipula egiten jarri su ahulean. Tipula eginda dagoenean, aurretik salteatutako txipiroiak eta koñak txorrotada bat (sukaldariaren gustura) eta arrain salda apur bat gehitu. Onddo belzak, aparte salteatu behar dira eta egindakoan bestearekin nahastu. Ez zaizue damutuko! ^m

osagaiak (bi lagunentzat)

800 gramo Abrako txipioi • 400 gramo onddo beltz • hiru kipula koñaka • oliba olio • irina • gatza • arrain salda



itsaso arana / jolastoki-koa

Mahasgintza

biologikoa

Horrela deitzen zaio mahastiak zaintzeko erabiltzen den teknika eta metodo ekologikoari. Mahasgintza biologikoa mahasti era natural baten lantzeko filosofia da. Ez da pestizida, herbizida, ongarri edo produktu kimikorik erabiltzen, hauen hondakinak ardora pasa ez daitezten. 80ko hamarkadan teknika honek arrakasta handia lortu zuen. Filoxera izurriaren aurka borrokatzeko sortutako txerto-eramaleak (portainjertoak), gaur egungo joera biologikoen adibiderik argienak dira. Gaixotasun batzuk aurretiaz zaintzeko eta sendatzeko osagai kimikorik gabeko metodo eraginkorrak ere garatu dira.

Sistema biologikoen erabilpenak mahastien produkzioa murrizten du, landareari gehiago kostatzen zaio-eta behar dituen elikagarri guztiak lurrean aurkitzea. Baina, beste alde batetik, egia da mahastietan materia organikoaren erabilpenak lurraren estruktura kimikoa eta organikoa mantentzen laguntzen duela, gainera urrak hobeto gordetzen duela ura. Laburbilduz, mahastigintza organikoak, mahastiaren mantentze eta garapen biologikoa bultzatzen du. ^m



Mahasti biologiko bat Ruedan

Alangoetxe txokoa

Historia handiko bilgunea



Txokoko kide bi askaria jaten

Izena: Alangoetxe. Horrela ezagutzen zuten sortzaileek txokotik hurbil zegoen etxe bat eta horrela bataiatu zuten aretoa. Dagoeneko etxea ez dago, baina txokoak badirau. **Funtzionamendua:** Asteburuetan eta bai astean zehar ere afariak antolatzen dituzte. Koadrila bakoitzak egun zehatza dauka hartuta. **Historia:** 1964an sortua, *Alangoetxe* herriko eta Uribe Kostako txokorik zaharrenetariko bat da *Bidebitarte*-rekin batera. **Batzordekideak:** Josu Ander Laka, Jon Abad... **Bazkideen kopurua:** Gaur egun 45 bazkide dira eta ez dute gehiagorik onartzen. **Sortzaileetariko batzuk:** Federico González, Javier Gómez... **Aretoaren ezaugarriak:** Modernoa (orain dela bi urte berri-tu zuten), koloretsua eta txikia (asko jota, 30 lagun sartzen dira)... **Emakumeak:** Gizonezkoak soilik dira bazkide, baina aspalditik emakumeak askatasun osoz sar daitezke. Hasieran honek ika mika handiak sortu zituen estatutuek debekatzen zutelako. 18 urtetik beherakoak ezin dira sartu, egun jakin batzuetan izan ezik. ^m

Geugaz jan elkarte

Bizkaiko sukaldaritza sustatzen



Goian, elkartearen logotipoa

Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin sortua, elkarte honek Bizkaiko euskal sukaldari gazte ospetsuenak biltzen ditu; esaterako, Sabin Arana, Aitor Elizegi, Fernando Canales... eta horrela hogeita hamasei arte. Elkarteko presidentea Alberto Zuloaga da. *Geugaz jan* iaz jaio zen eta aurtun, martxoan, aurkezpen ofiziala egin zuten Madrilén. Bizkaiko sukaldaritza eta produktuak defendatzea eta Bizkaiko sukaldarien arteko harremanak bultzatzea dira elkartearen helburu nagusiak.

Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

I

I aki Bitxitegia


Ω

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA



Janedan

urdaitegi

Adituak gara pernila, iberikoak eta
delicatessen produktuetan

Bidebieta, 4 behea
Tel. 94 676 58 79
SOPELANA

Alangobarri 10
Tel. 94 491 58 37
ALGORTA

HILARIO ARBELAITZ > sukaldaria

“Batzuetan lupaz begiratzeko zaituztela dirudi”



Argazkian, Hilario Arbelaiz, Zuberoa bere jatetxearen aurrean

Euskal sukaldaritzaren maisu handienetakoa da eta jaso dituen sariak eta kritika onak honen adibide argia dira. Besteak beste, Hilario Arbelaizek 1991eko Estatuko Gastronomía Saria eta 1993ko Euskadi Gastronomía Saria irabazi ditu eta Michelin Gidako izar bi ditu. Bere jatetxea, Zuberoa, Oiartzunen dago, XVI. mendeko baserri eder batean. *International Herald Tribune* egunkariak Europako onena eta munduko hamargarrena izendatu zuen.

—Sariak, kritika paregabeak... lanbide honetan hasi zinenean, hain estimatua izango zinela pentsatu zenuen inoiz?
—Ez, hasiera batean ez. Orain dela 32 urte gutxi gora-behera hasi nintzen lanean eta orduan ez nuen gauza horietan pentsatzen. Lana ahalik eta ondoen egitea nuen helburu eta jatetxea aurrera atera ahal izateko egiten nuen lan.
—Zelan eramaten da ospea?
—Ospea urte askoren ondorioa da; lan gogorraren fruitua eta pozgarria da, baina aldi berean, baita, gauzak hobetzen behartzen zaitu. Batzuetan lupaz begiratzeko zaituztela dirudi... Ospeak bere alde onak eta txarrak ditu.
—Zure mailako sukaldari batzuek urratza eman dute telebistara. Noiz Hilario Arbelaiz kamara baten aurrean?
—Proposamenak eduki izan ditut baina ni ez naiz telebista gizona, ez dut nire burua kamara baten aurrean ikusten. Ni sukaldeko gizona naiz eta telebista lagunei uztea nahiago dut, haiek primeran egiten dute eta.
—Non edo norekin ikasi duzu gehien?
—Orain dela urte asko, Iparraldeko herri

txiki batean, Ainhoan, hiru aste egon nintzen Izabal familiarekin, Iturria jatetxean eta han ikusi nuen gure sukaldaritzaz gain, beste hainbat gauza ere egin zitezkeela. Izabaltarrekin asko ikasi nuen baina munduko sukaldaririk onena nor den galdetzen badidazu, Joel Rouchon frantziarra erantzungo nizuke; sukaldari naturala, perfekzionista eta perfektua.


“Gure amak oso sukaldari onak ziren eta guk herentzia hori jasotzeko zortea eduki dugu”

—Maurice Izabalekin sukaldaritza frantziarra ikasi zenuen eta maisu bihurtu zinen ahatea prestatzen. Gaur egun Zuberoa-ko kartako plater askok ahatea daramate. Hauek al dira platerik arrakastatsuenak?
—Batzuk bai. Maurice Izabalekin ahatearen gibelarekin plater ugari egin daitezkeela ikusi nuen. Hala ere, Zuberoan, karta, urtean hirutan aldatzen dugu denboraldiko produktuak sartzeko. Produktu onekin lan egitea ezinbestekoa da plater gozoak egin ahal izateko.
—Eta, orokorrean, osagai onak ditugu Euskal Herrian?
—Bai, oso onak. Munduan zehar produktu on asko daude, baina Euskal Herrian bereziki osagaien kalitatea itzela da; arraina, barazkiak...
—Hamaika aldiz entzun dugu hemen inon baino hobeto jaten dela. Egia al da? Eta Euskadin ez ezik, non gehiago jan daiteke ondo?
—Euskal Herrian beti jan izan da ondo; gure amak oso sukaldari onak ziren eta guk herentzia hori jasotzeko zortea eduki dugu. Hemen ez ezik Frantzia ere oso ondo jaten da; oso sukaldari onak eduki

izan baitituzte beti. Txinako sukaldaritza nik ez dut oso ondo ezagutzen, baina ezagutzen dutenek paregabea dela diote.
—Zure lan egiteko erak, betiko euskal sukaldaritza eta joera berriak biltzen ditu. Euskal sukaldaritza berria deitu geniezaioke?
—Nire sukaldea aztertzeke, kontuan hartu behar da non hasi nintzen, nola eta noraino heldu naizen. Hasieran hemengo betiko sukaldaritza egiten nuen soilik, geroago Maurice Izabalekin berritzen hasi nintzen, baina gure sustraiak eta oinarriak ahaztu gabe. Batzuetan prestatzen ditugun platerak ez daukate Euskal Herriko sukaldaritzarekin zerikusi handirik baina osagaiak betikoak dira, hemengoak eta kalitate handikoak.
—Besteak beste Estatuko eta Euskal Herriko gastronomía sariak eta Michelin Gidako izar bi eskuratu dituzu. Gainera *International Herald Tribune* egunkari ospetsuak zure jatetxea Europako onena izendatu zuen. Zelako garrantzia dute sari hauek zure bizitzan eta zure lan egiteko eran?

“Saririk ematen badidate poz handia hartzen dut baina ez dut sariak lortzeko lan egiten; sariak lanaren fruitu dira”

—Ni sukaldean sartzen naiz eta dena bukatu arte ez naiz handik ateratzen. Lagun batzuk jantokira ateratzen dira, baina niri hori ez zait gustatzen. Nik lanean sinestu izan dut beti; lan egiten, ikasten ateratzen da bat aurrera. Eta horrela jarraitzen dut eta horren ondorioz saririk ematen badidate, poz handia hartzen dut, baina ez dut sariak lortzeko lan egiten. Sariak lanaren fruitu dira. m

**Arasa**
Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • Tel/Fax: 94 430 11 91 • 48990 Algorta

EREAGA
Bidaiak
Autobusak
T: 94 453 08 16 - 609 405 988
GETXO


Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreriak
Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO
Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

**GAVRKO**
GIZONENTZA -
KO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA
HARTU TXANDA

**HIRURAK**
T: 430 53
Sarrikobaso 15

Portu Zaharrear Goieztia jatetxe berriua

Uztailaren 15ean berrinaguratu zuten Goieztia erretegia, baina aurreko jabeek azkeneko sei urteotan mantendu duten ildo berbera, jarraitzeko asmoa du gerente eta sukaldari berria den Aitor Asenjok. Hala ere, aldaketa batzuk egon dira; “*Kazolatxoak eta eguneko menuak ematen hasi gara eta orain egunero zabalduko dugu*”, esan zigun Aitorrek. Eskarmentu handiko sukaldari honek, egile sukaldaritza lantzen du eta hori kartak eskaintzen duen plateretan igartzen da. “*Lehenengo platerak eta zizka-miz-*


kak oso bereziak izaten dira eta bigarrenak tradizionalagoak”, azaldu zigun. Nekorak, arrain freskoak eta mota guztietako haragi bereziak plantxan erreak Goieztiko espezialitatea dira. Erretegia Portu Zaharrera jaisten den Aretxondo kalean dago, jantoki zabal bi ditu eta guztira 80 lagun baino gehiago sartzen dira bertan. m

GOIEZTI ERRETEGIA / Aretxondo, 14
Algortako Portu Zaharra
Menua: 8,10 euro
Menu berezia: 18 euro
Erreserbak: 94 491 25 93



Argazkian, Aitor Asenjo

barrak



Zodiacos tabernako zerbitzariak

Zodiacos

30 urte, 30 pintxo mota

Duela gutxi Zodiacos kafetegiak 30 urte bete ditu. Denbora horretan Euskal Herria eta Telletxe kaleek bat egiten duten txokoan dagoen taberna zabal hau klasiko bat bihurtu da herrian. Eta kafetegi klasikoak bada, zer esanik ez barra janzen duten pintxoak! Angela Prietok 30 mokautxo mota prestatzen ditu egunero: itsaski kanapeak, urdaiazpikoa piper gorriekin... eta kafetegiko espezialitatea, izar pintxoak, “Tumbados del Zo-

diacos” deitzen dutena: hegaluzea, pernila, mahonesa eta langostinoa. Egilea, Angela da baina izena bezeroek jarri zioten, azaldu zigun Carlos Abascal-ek, Zodiacos-eko jabeak: “*Ez genekien zelan deitu bezero batek, emaguzu etzanda dauden horietako bi eskatu zidan arte*”. Bestetik, Zodiacos-en ematen dituzten gosariak gogoangarriak dira.

ZODIACOS Euskal Herria z/g, Algorta
Telefonoa: 94 460 40 59

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu
etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Erosketa etxera eroaten dogu!!

Ugari
supermerkatua

ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:30

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

udondo
taberna
zatoz!

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

uk

zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

irabazi bi lagunentzako menu bat GARDOKI Jatetxean

Nor da?

- **Getxon bizi da**
- **1969an munduratu zen Gernikan**
- **lazko udan denon ahotan ibili zen**
- **Bere mobila ez da Movistar**

> Aurrekoaren erantzuna: Aitor Larrazabal

> Irabazlea: **Aida Ulibarri* (Algorta)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki
Jatetxea

Mendieta kalea 47
Sopela
Telf. erreserbak: 94 676 07 61
astelehenetan itxita

UK 67

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

ITXASGANE

prentsa ¥ aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA

Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21

ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)

T:94 430 69 42 /ALGORTA

CALENDOS

RIKI

UMEAK-GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543 - AREETA

TXIBERRI

edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

[horoskopoa]




URA
t
(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Oso apal eta larri sentituko zara. Beharbada, zure buruaz apur bat ahaztu beharko zenuke eta ingurukoengan arreta gehiago jarri. Gainera, mundua egoera eta leku berriz beteta dago. Ireki begiak!



AITZURRA
t
(Martxoak 21 apirilak 19)
Ingurukoen eragin txarretatik urrundu, ez zaitzez ergela izan. Ekaitza dagoenean onena porturako bidea hartzea izaten da. Denbora gehiago eskaini zure buruari eta zure lagunak ondo aukeratzeari.



GARIA
t
(Ekainak 19 uztailak 18)
Azkarra zara eta besteen aurrean zure gaitasun hori demostratzeko aukerak izango dituzu. Neba-arrebengandik edota familiakoengandik pozteko motiboak etorriko zaizkizu. Aprobetxatu itzazu.



META
t
(Irailak 17 urriak 16)
Lan handia duzu baina, nahiz eta amaitzen saiatu, ez duzu lortuko. Baztertu momentuz lan horiek eta arreta gehiago eskaini etxekoci, orain haiengandik jasoko baituzu poztasun bakarra, ez da gutxi.



OTSOA
t
(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Zure bizitza aldatzeko gogoa sentituko duzu, batez ere maitasun kontuetan. Aldaketa onerako izan daiteke baina aldi berean gogorra. Zure beldurrak eta lotsak aztertzeko astia hartu; ez zaizu damutuko.



HOSTOA
t
(Apirilak 20 maiatzak 19)
Familiarekin arazoren bat ikusten da. Honen ondorioz larri eta haserre sentituko zara, baina ez luzaroan. Lagunak ere badituzu eta beharbada, hortxe aurki dezakezu arazo horri aurre egiteko laguntza.




LASTOA
t
(Uztailak 19 abuztuak 17)
Lehenengoan artean egoteko zure grina entzuna izango da nonbait. Ondo moldatuko zara, itxura ona emango duzu. Baina kontuz, inbidiak piztu ditzakezu inguruan. Argi ibili eta burua erabili!



HAZIA
t
(Urriak 17 azaroak 15)
Lasai motel, oraingoa ez da zure sasoirik onena, ados. Baina maite zaituztenak ez dira horren errudunak, eta gainera ez dute zure eurekiko jarrera hori merezi. Aldatu! Bihar beranduegi izan daiteke.



ADARRA
t
(Otsailak 19 martxoak 20)
Ustekabeko gertaera batek lur jota utziko zaitu baina, hala ere, lasai egon, susto bat besterik ez da izango eta. Osasunez, makal zabilta, indar barik. Hortaz, kirol apur bat egiten hasi eta laster batean hobeto sentituko zara.



EGUZKIA
t
(Maiatzak 20 ekainak 18)
Beti aurkako iritziak botatzen, honezkero lagunak aspertuak dituzu. Martxa honetan segituz gero, zure aurkako boikota antolatuko dute behingoz isildu zaitzen. Hala ere, erremediorik ez duzula ematen du.



IRATZEA
t
(Abuztuak 18 irailak 16)
Zure ohiko jarrera kritikoak gogoaren atak joka izango duzu. Aldi berean, zure usteak gauzatzeko beldur izango zara. Ezintasunaren antzeko zer edo zer sentituko duzu. Ez zaitzez kezkatu, animo baliente!



NEGUA
t
(Azaroak 16 abenduak 20)
Guztioi komeni zaigu lantzean behin kirol apur bat egitea, baina orain zuri bereziki. Jasaten ari zaren presioa askatzeko, ez zalantzarik izan: oso lagungarri gertatuko zaizu. Bat, bi, bat, bi, bat, bi,... eta askoz hobeto sentituko zara.

Lur planeta. Lurreratzen



Kantoi honetan sartzeak nire ideiak argitzen lagunduko dit, antza, hemen argitu daitekeen gauza bakarra da-eta, izan ere, kantoi hau oso ilun dago, zarama eta itoginak nonnahi eta gizon bat nire belarrian txirula jotzen ari da bere ed subentziona diezaiodan. Arazoak ditu doinuarekin Deba jounbotontonton... eta bihotzez musika eskolak har ditzala gomendatu diot eta bide batez, Oraldine pote oso bat tragu batean edan dezala. Badoa gizona... Ez

Nire planetatik datorren mezu telepatikoa da! Azkenean... mezuak zera dio: Puntu biren arteko distantziarik laburrena aldapa behera da. Tira, dantza ezazu! Zer esan nahi izango ote dute. Laster batean nire planetara itzultzea nahi dutela ulertu dit. Izan ere, handik alde egin baino lehen nire gelako gas lampara piztuta utzi nuen eta nire amak ez du faktura ordaindu nahi. Artean, neska batek diruaren truke sexua eskaini dit. Sexua maitasun barik esperientzia hutsala dela zara.



Ezin naiteke nire planetara itzuli espaziontzia apur daukat-eta. Argitxoak dituen gizonaren analisi azkar batek ekialdeko itxura duela dela esan dit. Tramanku bitxi bat erakutsi dit eta "belarritako distiratsu eragilea" dela azaldu dit eta ez bakarrik belarrietan paparrean ere jarri daitekeela eta baita al kondera gemeloen modura erabili. Trukean dirua eskatu dit, kantoi honetan ohitura bihurtzen ari dena. Ez nau

Antza, munduko bigarren gerran Ameriketako Estatu Batuek arma gisa erabili zuten giroa lasaitzeko eta tropen moralala indartzeko, Perl Harbour-en. Barre-algara aterata zait eta elurra sutan, itsasoko urak banatzen edo gizonak kartoizko kutxetan lotan ikusi eta gero hamar erosiako dizkiodala esan diot. Ezkerrera begiratzen dut. Ekialdekoari atzera begiratzen diot... Emaizkidazu hamar! Hara! Barrerako tramankulu honek badauka txep sofistikatu bat eta matxuratuta daukadan espaziontzia.



ALAITZ TELLETXEA > musikaria

“Barkatzen dakien pertsona miresten dut”



ALAITZ TELLETXEA—. Alaitz Telletxea edo *Alaitz eta Maider* izenak batera esan behar direla ematen baitu askotan. 1989an, 14 urte zituztela hasi ziren elkarrekin jotzen (Alaitz 9 urterekin hasi zen) nahiz eta 1997ra arte ez zuten diskorik kaleratu. Aurtengo udaberrian euren hirugarren eta azken lana aurkeztu dute: *Auskalo*. Xalotasuna, goxotasuna eta pop melodia itsaskorrek dira Oiartzungo bikotearen musikaren ezaugarri nagusiak.

Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...

Lotsatia naiz, sentibera, burugogorra...

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena? Ezkorra izatea.

Maiz errepikatzen zaizun ametsa... Euskararen egoera beste bat izatea, baita Euskal Herriko egoera ere.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat... Bederatzi urte nituenean, trikitixa oparitu zidatenekoa. Gogoratzen dut txikitatik eskatzen nuela trikitixa eta oparitu zidatenean izugarrizko poza sentitu nuela. Nire bizitzako momenturik hoberenetakoa izan zen.

Zein da gehien miresten duzun pertsona? Ona den pertsona miresten dut; entzuten duena, gauzak ondo egiten ahalegintzen den pertsona, barkatzen dakien pertsona miresten dut.

Zer da pertsona batengan gehien baloratzen duzuna? Zintzotasuna eta gezurrik ez esatea miresten dut, barkatzen jakitea eta pertsona baikorra izatea ere bai.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena? Momentu honetan ez dut gogoan, baina jarraitzailea izatea, beste barik, ez da gutxi.

Zein komentariok egin dizu kalte gehien? Ez dut gogoratzen, baina oso seria naizela esan didate askotan.

Zein da zure libururik gogokoena?
Martes con mi viejo profesor liburuak asko hunkitu ninduen.

Abestirik gustukoena?
Oskorriren *Ostatuko neskatxaren koplak*, bat esateagatik.

Eta film bat? *El hijo de la novia* asko gustatu zitzaidan.

Zein lema egingo zenuke zurea? *Carpe diem* edo bizi momentua.

Zertan edo norengan sinesten duzu? Pertsonarengan sinisten dut.

Zerbaitekin damutzen zara? Gauza askorekin damutu izan naiz, baina horietatik zerbait ikasten ahalegintzen naiz.

Zerk ematen dizu beldurra?
Heriotzak beldurtzen nau, bakardadeak ere bai batzuetan. Beno, bakardadeak baino, bakarrik sentitzeak beldurtzen nau.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu? Nire ingurukoak (maite dudan jendea) pozik eta ongi ikusteak egiten nau zoriontsu. m



Bittor Egurrola

Areetako Batzokiko dantza taldea 1928. Goiko argazkia Areetako Gizarte Etxea inauguratu zen egunean hartua dago. Orduan, 1928an, Areetan eliza bat baino ez zegoen, Mesedeetakoa. Esan daiteke, beraz, gizarte etxe hura Areetako kristau guztientzat zabaldu zela. Askoz geroago, etxe hau Getxoko Udal Kontserbatorioaren egoitza bihurtu zuten, 1986ko azaroan. 1928ko Gizarte Etxea eta gaur egungo Kontserbatorioa eraikin bera dira eta oinarrizko egitura mantentzen du, batez ere kanpoko eta barruko hitzaldi aretoa. Etxe honetan egiten ziren elizarekin zerikusia zuten bilerak eta abadeen etxebizitzak ere bertan zeuden. *Berantzagi* dantza taldea ere bertan sortu zen 1968an, eta han izan zuen egoitza urte batzuetan. 1937 eta 1946 urteen artean, gerra garaian, Gizarte Etxea eliza bezala erabili zen (meza, bataioak...), 1937ko irailaren 16an Mesedeetako eliza lehertarazi zutelako.

Lehenengo lerroa: ?, Miguel Goñi, Pedro Oliber, Jesús Agirre, Bartolomé Goñi / **Bigarren lerroa:** Mateo Atxurra, Manolo Oliber, Luis Sarralde, Luis Urrezi, Teodoro Agirre (José Antonio Agirre lehendakariaren anaia) / **Hirugarren lerroa:** Carmen Bilbao, Juli Saribitarte, Maritxina Etxaburu, Don Miguel Unamuno (abadea), Juanita Aulestiarte, Isabel Agirre / **Laugarren lerroa:** Barcena, M. Angeles Urkidi, Sagredo